

# Euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak: normalizaziorako gakoak

**Naiara Berasategi**

*EHU/UPV - Euskal Herriko Unibertsitatea* (naiara.berasategi@ehu.es)

**Jone Goirigolzarri**

*Deustuko Unibertsitatea* (jone.goirigolzarri@deusto.es)

**Ibon Manterola**

*EHU/UPV - Euskal Herriko Unibertsitatea* (ibon.manterola@ehu.es)

**Gorka Salces**

*EHU/UPV - Euskal Herriko Unibertsitatea* (gorka.salces@ehu.es)

**Xabier Landabidea**

*Ikastolen Elkarte* (xabier.landabidea@deusto.es)

Sarrera-data: 2015-09-03 / Onartze-data: 2015-10-15

**Laburpena.** Elkarlanean idatzitako artikulu honen abiapuntua 2015eko IkerGazte kongresuaren izen bereko mahai-inguruan kokatzen da, non ikerlariei haien ikerketa esparru eta esperientziatik bost galdera komunei erantzuteko eskatu zitzaion. Ondorengo orrialdeetan lau hizlarien proposamenak jasotzen dira, labur, eta ondoren bakoitzak besteen proposamenei erantzuteko tarte hartu du. Mahai-ingurua oinarri hartuta hiztun berriak eta euskararen biziberritzea aztergai dituzten ikerlari eta ikerketa lerroen arteko hausnarketa komun bat abiarazi eta etorkizunerako lankidetzak aukerak bultzatu nahi izan da elkarriketari bidea zabaltzeko asmoz. • **Hitz gakoak:** *Euskara, hiztun berriak, normalizazioa, eskola, komunikabideak, didaktika, hizkuntza politika.*

**Abstract.** The starting point of this article written in collaboration is the roundtable discussion bearing the same name as the 2015 IkerGazte conference. In it, researchers were asked to respond to five common questions from the fields and experiences of their research. This article briefly covers the proposals of the four speakers and that is followed by short space provided for each of them to respond to each other's proposals. Taking the roundtable as the basis, a common reflection was started between the researchers and the lines of research that have studied non-native Basque speakers and the revival of the Basque language, with the aim of promoting opportunities for future collaboration in order to open up the way for dialogue. • **Key words:** *Basque, non-native Basque speakers, normalisation, school, mass media, didactics, language policy.*

## SARRERA

### I

**Euskararen (a)normalizazioa, hiztun berriak eta erabilera auzitan.**

**Xabier Landabidea Urresti**

XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako euskal gizartean ohikoa da euskararen normalizazioaren gaia eztabaida akademiko, politiko eta sozialaren erdigunean behin eta berriro azaleratzea euskararen ezagutzaren eta erabileraren datu berriak azaltzen diren aldiro. Aldi berean ohikoa zaigu baita gaia erdigunean birkokatu beharraren inguruko kritika ere, euskararen normalizazio faltak eragiten baitu euskararen normalizazioa behin eta berriro gai —erlatiboki— garrantzitsu bilakatzea. Finean normalizazio politika ororen helburua baita haren objektua den hori hain normala bihurtzea ezen ez duen politika berezirik beharko.

Horrela bada, euskararen normalizazioaren arduraren gaurkotasunak (hau da beronen faltak, eta bertara hurbiltzeko planteatzen diren gako, lehentasun eta baliabideen antolaketa posibleen inguruko eztabaidak) gaiak euskal gizartean duen izaera zentrala eta periferikoa islatzen dizkigu. Oraindik, hemen, 2015. urtean, euskararen normalizazioaren gakoek jarduteak, jardun beharrak, euskararen anormaltasuna jartzen digu agerian. Euskararen normalizazioaz (berriro) hitz egitea, euskararen egoera anormala dela gogoratzea, anormalizatzea ere bada, haren normalizazioaren alde.

Arduren periferiatik zentrorako bidaia bakoitzean, euskararen normalizazioak adiera eta aldaera ezberdinak hartzen dituzte eztabaidek, osagai batzuei indar eta aditasun gehiagoz erreparatuz eta beste batzuk alde batera edo beste baterako utziz. Izan ere euskararen normalizazioaren aldeko (eta kontrako) diskurtsoek ere lehentasunak dituzte, eta lehentasun hauek beti daude historikoki kokatuta. Honek euskararen normalizazioaren aldeko diskurtsoen heterogenotasuna bultzatzen du, zentralizat elementu ezberdinak hartzen direlako, eta eragile, korrante, talde eta alderdien interes aniztasunaren bestekoa izan ohi baita proposamenena. Hala ere joera batzuk identifikatu daitezke.

Gaur egun, normalizazioaren gaia aipatzean adibidez, ia-saihestezinak bihurtu dira “hiztun berriak” eta “erabilera” kontzeptuak. Diskurtso eta proposamenen aniztasunaren baitan, euskararen hiztun berrien eta euskararen erabilera errearen ardurak nolabait azpimarratuta agertzen zaizkigu, uneko arduren artean bereziki nabarmentzeko moduko azpi-

**Mahai inguru bezala antolatutako tailer honetan euskararen normalizazioari diziplina soziolinguistikotik eta haratago egin dakizkikeen ekarpenak bildu nahi izan ziren, hausnarketarako galdera komunak jarriz ikuspegi eta tradizio intelektual ezberdinetako hizlariei (filologia, komunikazioa, soziologia) lau begirada ezberdin marrazteko proposatuz: soziolinguistika, hizkuntzaren didaktika, kontsumo kulturala eta kultura-aniztasuna.**

ardurak (edo gain-ardurak) bailiran. *Zeitgeist* edo garaiko izpirituaren azkura espezifikoak behin betiko definitzea ezinezkoa -eta ziurrenez alferrikakoa- litzaiguke, baina garaiko gizartearen erronkez zerbait esaten digute bi kontzeptuok. Operazionalizazioaren mesedetan, eta ikergai-subjektua ahalik eta modu irekienean hartze aldera, hiztun berri bezala euskara familia-transmisioa ez den beste bide bat(zu)etatik ikasi duten pertsona guztiak hartuko dira (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla eta Uranga, 2013).

Horrela bada, Udako Euskal Unibertsitateak UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera antolatutako IkerGazte Ikertzaile Euskaldunen Nazioarteko lehen Kongresuak (2015eko maiatzak 13-15, Durango) abagune ezin hobea eskaintzen zuen euskararen normalizazioaren gakoei heltzeko bi kontzeptu zentral (eta nolabait esatearren modako) hauei erreparatuz. Helburu horrekin antolatu zen maiatzaren 14ko arratsaldeko *Euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak: normalizaziorako gakoak* tailerra. IkerGazte kongresuak hiztun berriak, euskararen erabilera eta euskararen biziberritzea aztergai dituzten ikerlari eta ikerketa lerro ezberdinen arteko hausnarketa komun bat abiarazi eta etorkizunerako lankidetzak aukerak bultzatzeko abagunea eskaintzen zuelakoan.

Mahai inguru bezala antolatutako tailer honetan euskararen normalizazioari diziplina soziolinguistikotik eta haratago egin dakizkikeen ekarpenak bildu nahi izan ziren, hausnarketarako galdera komunak jarri ikuspegi eta tradizio intelektual ezberdinetako hizlariei (filologia, komunikazioa, soziologia) lau begirada ezberdin marrazteko proposatuz: soziolinguistika, hizkuntzaren didaktika, kontsumo kulturala eta kultura-aniztasuna. Ikerlariei haien ikerketa esparrutik eta ikerketa esperientzia oinarri hartuta bost galdera komunen inguruan proposamen libre bat egiteko eskatu zitzairen (jakinik sarri dikotomia faltsuak, eta are, ezinezkoak ere badirela), bakoitzak bere esparrutik eta interes-eremutik heltzeko:

- 1) Une honetan euskararen ezagutza ala erabilera da gure erronka nagusia? Zer da urgentea eta zer da inportantea?
- 2) Hizkuntza ala hiztunak jarri behar ditugu euskararen biziberritzearen oinarrian?
- 3) Arnasguneak, ahalguneak, itoguneak, ahulguneak. Hiriak, herriak, ghettoak eta espazio hibridoak. Ba al dugu boterea eta interakzio ereduak birpentsatzeko aukerarik/beharririk?

- 4) Hiztun, erabiltzaile eta hizkuntza-identitate molde berriak: norantza doaz euskararen gutasunak?
- 5) Zer gorde behar dugu egindakotik? Zertan jarri behar ditugu indarrak orain? Zer eskainiko diogu egingo dugunari?

Ondorengo orrialdeek tailer hartan gertatutakoaren berri jasotzeaz gain bertan izandako eztabaidari segida eman nahi diote. Hala, hizlari ba-koitzari esandakoa labur jasotzeko eskatu zaio, eta behin denek denon proposamena irakurrita bigarren txanda bat izan dute, erantzun bat emateko (kolektiboa zein norbanakoei zuzendua).

Gorka Salcesek komunikabideak eta hedabideen kontsumoa hartu ditu hizpide; Naiara Berasategik eskolan jarri du begia eta egun dagoen aniztasun linguistiko-kulturala kontuan izanik egin ditu bere ekarpenak motibazioa eta transmisio ereduak oinarri harturik; Jone Goirigolzarrik hiztun berrien bizipenak hartu ditu hizkuntza politikan eta soziolin-guistikan oinarritutako begirada proposatzeko eta amaitzeko Ibon Man-terolak hizkuntzen didaktikatik egin ditu proposamenak.

## ABIAPUNTUAK

I

### Normalizaziorako gakoak: komunikabideak

Gorka Salces Alcalde

“Ezagutza ala erabilera da gure erronka nagusia? Zer da urgentea eta zer da inportantea?”. Galdera horri erantzuteko, azkeneko hamarkadetan Euskal Herriko egoera soziolinguistikoak nolako garapena izan duen azaldu beharra dago, labur-labur. Deskribapen horretan Sanchez Carrionek hizkuntzaren jabeakuntza prozesua azaltzeko formulatu zuen teoria izango dugu bidaide. Hark planteatutakoaren arabera, hiru dira hizkuntza baten ikasketa prozesua baldintzatzen eta osatzen duten al-dagaiak: erabilera, ezagutza eta motibazioa, elkarren osagarri eta elkarren dependente direnak (Sanchez Carrion, 1991).

Ezagutzaren aldetik, euskaldunen hiztun-komunitateak 1991n baino 200.000 kide gehiago zituen 2011n (Hizkuntza Politikarako Sailburu-or-detza, 2013: 20). Erabilerari dagokionez, VI. Kale Neurketaren emaitzek ez dute irakurketa positiboetarako tarte handirik uzten (Soziolinguistika Klusterra, 2011: 2). Hiztun komunitatearen barne konposaketak ere be-rebiziko garrantzia du edozein analisi egiterako orduan. Arlo kualitatibotik ikusita, esan daiteke euskal gizartearen polarizazio linguistikoa gaur baino askoz handiagoa zela 1990ko hamarkadaren hasieran, bai geo-

---

**“Ezagutza ala  
erabilera da gure  
erronka nagusia?  
Zer da urgentea  
eta zer da  
inportantea?”.**

**Aldaketa nabarmenak jazo dira Txepetxek bere teoria plazaratu zuenetik, eta garai horretan erabateko logika zuten**  
**Motibazioa> Ezagutza> Erabilera/ Erabilera> Ezagutza> Motibazioa ibilbideen inguruan gaur egungo ikuspegitik hausnartu beharko genuke.**

grafikoki (Eusko Jaurlaritza, 2011: 26) bai domestikoki. Euskal hiztunen atomizazio prozesu bikoitza gertatu dela esan dezakegu, beraz. Esparru fisiko definitu eta ezagunen jabe ziren bi talde linguistikoz osatutako gizartetik bi komunitate horiek espazio bera partekatzen duten gizartera igaro gara. Polarizaziotik nahasketara, alegia.

Eta motibazioarekin, zer? Hemen dago gakoa, nire ustez. Sanchez Carrionek hizkuntza jabekuntzaren teoria azaldu zuenean, 80ko hamarkadaren bukaeran, euskal hiztunen tipologia ez zen, inondik ere, egun bezalakoa. Garai hartako batez besteko euskaldunberriak hizkuntza euskaltegian ikasteko hautu kontzientea egiten zuen, eta gaur egungook eskolan jaso dugu euskara gure gurasoek hala erabakita. Motibazioa zer zen jakin aurretik genekien euskaraz berbetan.

Aldaketa nabarmenak jazo dira Txepetxek bere teoria plazaratu zuenetik, eta garai horretan erabateko logika zuten Motibazioa>Ezagutza>Erabilera/Erabilera>Ezagutza>Motibazioa ibilbideen inguruan gaur egungo ikuspegitik hausnartu beharko genuke. Hiztun berrien kasuan, Ezagutza>Motibazioa>Erabilera paradigmatara igarotzen ari garela susmatzeko zantzuak eskaintzen dizkigute orain arte aletu ditugun datuek. Elementu gakoa *motibazioa* dela esan berri dut, baina egiari zor pluralean deklinatu beharko genuke aldagai giltzarri hori haren benetako eraginaz eta dimentsioaz jabetzeko. Izan ere, nork bere motibazioa du hala hizkuntzarekiko nola komunikabideekiko. Egitate honek bigarren galdera erantzutera garamatza.

“Hizkuntza ala hiztunak jarri euskararen biziberritzearen oinarrian?” Nire irudiko, hiztunaren motibazioaren arabera moldatu beharko da diskurtsoa. Euskararekiko motibazio pragmatikoa dutenekin bat erabili beharko da, norbanakoa erdigune duena; motibazio sinbolikoa dutenekin, berriz, bestelako argudioak erabili beharko dira, komunitateari lotuago egongo direnak.

Era berean, komunikabideak beharrian arruntak (*ordinary social gratifications*) asetzeko erabiltzen dituztenentzat (Aksoy eta Robins, 2006) tankera bateko proiektuak landu beharko dira, eta bestelakoak izan beharko dute hedabideen bitartez identitateari eta hizkuntzari lotutako beharrianak (*ethnolinguistic uses and gratifications*; Vincze eta Moring, 2013) ase nahi dituztenei zuzendutakoak. Hots, askotariko ikuspegiak eta edukiak eskaintzen dituzten komunikabideak behar ditugu erabiltzaile potentzial anitzak euskara(zkoeta)ra erakartzeko.

“Arnasguneak, ahalguneak, itoguneak, ahulguneak. Hiriak, herriak, ghettoak eta espazio hibridoak. Ba al dugu boterea eta interakzio ereduak birpentsatzeko aukerarik/beharririk?” Hizkuntzarekiko motibazioa eta honen ezagutza ez dute zertan nahikoak izan hiztunek hura erabil dezaten. Euskaraz hitz egiten jakiteaz eta euskaraz hitz egin nahi izateaz gainera, benetan erabili ahal izateko inguruneko gutxieneko baldintzak (Martinez de Luna et al., 1998) bete behar dira, eta azken hauek hiztunari hizkuntza praktikatzeari ahalbidetuko dioten espazio eta pertsona kopuru minimo baten bitartez gorpuztuko lirateke.

Gero eta gehiago gara erdara ama hizkuntza dugun euskaldunak, erdaldunak nagusi diren eremuetan bizi garenak gainera. Guretzat, komunikabideak testuinguru oztopatzailea eta antsietate linguistikoa gainditzeko baliabidea edo *arnasgune ez fisikoa* izan daitezke. Horretarako, baina, garrantzitsua da tokiko komunikabideen sarea indartzea, eta euskara hain indartsu ez dagoen eremu geografikoetara hedatzea. Oro har, tokiko komunikabideen eskaintza arnasgune fisikoen mugekin bat egin izan du duela oso gutxira arte. Azken urteotan errealitate hori gainditzeko bidean mugarririk inportanteak jarri dituzte *Arabako Alea*, Bilboko *Uriola*, Hego Uribeko *Geuria* eta *Aiaraldea* bezalako proiektuek. Hala ere, norabide horretan lan egiten jarraitzeak berebiziko garrantzia dauka, tokiko edukiak euskaraz jasotzeko aukerarik ez dagoen eremuetara hedatzea estrategikoa bailizateke.

Migranteen kasuan, komunikabideak akulturazio tresna indartsua izan daitezke, jatorrizko kulturaren gordeleku den familia-eremuan interferentzia kulturalak eragin baititzaie (Amezaga et al., 2001: 81). Sorterriko hedabideak eskura izanez gero, berriz, fisikoki urrun dagoen espazio publiko horren partaide sentitzeko aukera dute gutxiengo diasporikoetako kideek. Taldekidetasun sentimenduen dislokazio espazio-tenporal horretan sakonduta, Amezagak gogora ekartzen ditu Meyrowitz-en “placeless cultures” delakoak (Meyrowitz, 1985), zeintzuen arabera kultura batek ez du zertan leku fisiko bati lotuta egon, komunikabide digitalek deserrotze geografiko hori posible egin dutelako. Bada, beste kontinenteetatik etorritako euskal herritar berrientzat telebista euren jatorrizko komunitatearekin kontaktuan egoteko eta haren parte sentitzen jarraitzeko bide eraginkorra den modu berean, euskal hiztun komunitatearen periferia geografikoetan bizi garen euskaldunontzat euskarazko komunikabideak hiztun komunitatearen partaide sentitzeko modua izan daitezke. Halaber, sare sozialek ere arnasgune ez fisikoa eskaintzen digute inguru erdaldunetan bizi garenon euskaldunoi, hain zuzen ere identitatea eraikitzeko eta euskara erabiltzeko arnasgunea (Diaz, 2014).

---

***Euskaraz hitz egiten jakiteaz eta euskaraz hitz egin nahi izateaz gainera, benetan erabili ahal izateko inguruneko gutxieneko baldintzak bete behar dira, eta azken hauek hiztunari hizkuntza praktikatzeari ahalbidetuko dioten espazio eta pertsona kopuru minimo baten bitartez gorpuztuko lirateke.***

**Gaur egun, estatuen saiakera uniformizatzaileez gain, hizkuntza gutxituek inoizko eskaintza kultural oparo eta eskuragarrienari egin behar diote aurre. Etxetik jasotzen duen mintzoa eta kultura kanpotik jasotako osagaiekin nahasten ditu, gero eta gehiago, XXI. mendeko norbanakoak.**

“Hiztun, erabiltzaile eta hizkuntza-identitate molde berriak: norantza doaz euskararen gutasunak?” Gaur egun, estatuen saiakera uniformizatzaileez gain, hizkuntza gutxituek inoizko eskaintza kultural oparo eta eskuragarrienari egin behar diote aurre. Etxetik jasotzen duen mintzoa eta kultura kanpotik jasotako osagaiekin nahasten ditu, gero eta gehiago, XXI. mendeko norbanakoak. Sarasuak (2013) irekidura/jarraidura dinamika gisa izendatu zuenaz ari naiz, edota Lull-ek (2006) push/pull kultural gisa definitu zuenaz. Prozesu horretan, komunikabideak funtsezko eragileak izan (go) dira.

Euskal Herriaren kasuan, kontuan hartu beharko da hiztun komunitatearen banaketa geografikoa nolakoa den komunikabideak pentsatzerako orduan. Izan ere, trinkoak diren hiztun komunitateak kulturalki trinkoak izaten dira, baina hori ez da Euskal Herriaren kasua. Horrenbestez, hedabideek komunitatearen aniztasun soziogeografiko horri erantzun beharko diote, leku bakoitzean euskaldunen kopuruaren arabera helburuak planteatuz eta edukiak tokian tokiko egoeraren arabera moldatuz. Hots, Moring-ek (2007) *asymmetric tasks* deitu zuen hori bete behako dute euskarazko hedabideek, eta horren lekuko Goienako Iban Arantzabalek aldizkari honetan bertan idatzitakoa:

Eskualde bakoitzean, hango herriak zelakoak diren jakinda eta hango herritarren ikuskeratik emango lukete mundua ikusteko modu bat, eskualde horretatik irakurketa bat aterako litzateke ezein gertakari tokiko betaurrekoez begiratzearen ondorio. Gertakaria bertaratuko litzateke eta informazio bera modu ezberdinetan eman. Seguruenik, Zuiako koadrilan eta Goierriin total ezberdin. (Arantzabal, 2008: 110).

“Zer gorde behar dugu egindakotik? Zertan jarri behar ditugu indarrak orain? Zer eskainiko diogu egingo dugunari?” Euskarazko hedabideek azken urteotan hartutako erabakien artean, saretzea gorde beharko litzatekeela uste dut: *Hekimen, Tokikom* edo *Arrosa Sarea* sortu izana oso albiste positiboa da, aniztasuna ezbaian jarri gabe sektorearen atomizazioa (eta horrek sortzen dituen mesfidantzak zein tirabirak) gainditzeko bidean funtsezko aurrerapausoa baita. Era berean, elkarlan horrek edukiak birziklatzeko (eta baliabideak ekonomizatzeke) aukerari atea irekitzen dio.

Bestalde, indarrak hutsuneak betetzean jarri beharko liratekeelakoan nago. Hutsune geografikoak aipatu ditut dagoeneko, baina horrez gain eduki aldetik ere bete gabeko esparru garrantzitsuak daude. Gustatu ala ez, gure ondoko (baitako) hizkuntza guztietan arrakastatsuenak diren produktuak falta zaizkigu euskaraz. Ikuspegi autozentratu batekin landu

daitezke gaiok, baina noizbait heldu beharko zaio erronkari. Goizalde Landabasok bikain eta umorez jorratu du auzia *Berria*-ko zutabearen:

Txutxu-mutxu aldizkaria. Euskaraz. Bai, irakurle maitea, gure hizkuntza lohitu egin behar da. Badakit, jakin, euskal herritarrok ez garela batere hizki-mizki zale. Dokumental eta albistegi jale naturala da euskalduna. Edozelan ere, bihur gaitezen friboloago. Euskararen salbazioak ez al du merezi? (Landabaso, 2015)

Gurean, eskaintza osotasuna funtsezkoa da: komunikabide mota guztiak formatu guztietan izan behar ditu hizkuntza batek esparru mediatikoa normalizaziora iristeko akuilu izan dadin (Moring, 2007), galgarri izan beharrean. Horrekin lotuta, *monokultiboa* apurtu beharko litzateke, hedabide mota bakoitzean erreferentziala den komunikabide bat baino gehiago izan dezagun. Hizkera mota guztiak presente egotea ere oso garrantzitsua da, irakurle/ikus/entzuleen identifikazioa indartzeko: ulerterrazak izatea, tokiko errealitatera egokitzea eta erregistro egokia erabiltzea funtsezkoa da. Horrez gain, teknizismoak gizarteratzeko lana egin beharra dago. Azkenik, sare sozialak propio landu behar dira, erabiltzaileak komunikabideen edukietara sar daitezen amu funtzioa betetzen baitute egun, eta agerikoa baita etorkizuneko kontsumo mediatiko gehiena bide horretatik etorriko dela.

Etxeko lanak jartzea erraza da; horiek txukun egitea, ordea, gaitzagoa izaten da. Alabaina, azaldutako esparru askotan euskarazko hedabideek nota ona lortzen dutela uste dut, ikasmaterial berririk erosteko modurik gabe eta anai-arreba nagusien koadernoak oinordetzan jasota, gainera. Gabezia bertute bilakatzean dago gakoa, eta esperientzia komunek ematen duten jakintza komunitatearen periferian dauden kideen zerbitzuan jartzea da hori lortzeko bideetako bat. Badago horretarako giza kapitalik eta gogorik.

**Eskola eta askotariko errealitateak: integrazioa, transmisioa, harreman sareak eta ikuspegi komunitarioaren garrantzia euskararen normalizazioaren bidean.**

**Naiara Berasategi**

“Ezagutza ala erabilera da gure erronka nagusia? Zer da urgentea eta zer da inportantea?” Ezagutza ala erabilera? Biak elkar elikatu dezakete, eta hala erakusten digu praktikak zein aurrera eraman diren Ikerketa desberdinak, Txepetx-ek (1987) ere hala azaltzen zuen, ontzi komunikatuen bidezko irudian. Kontua da, kasuan kasu batzuetan erabileran eragin beharko dela eta beste batzuetan ezagutzan. Argi dago, ezagutzan au-

**Gurean,  
eskaintza  
osotasuna  
funtsezkoa da:  
komunikabide  
mota guztiak  
formatu  
guztietan izan  
behar ditu  
hizkuntza batek  
esparru  
mediatikoa  
normalizaziora  
iristeko akuilu  
izan dadin,  
galgarri izan  
beharrean.  
Horrekin lotuta,  
monokultiboa  
apurtu beharko**



**A eta B ereduak duten gabeziak nabariak dira, argi baitago eredu hauetan ikasirik nekez euskalduntzen direla ikasleak. Bide horretan, neurriak jarriko beharko dira egoera horri aurre egiteko. D ereduak ere zailtasunak ditu ingurune ez euskaldunetan, eta horri begira ere bitartekoak jarri beharko dira.**

rrepauso garrantzitsua eman dela azken urteetan, egun elebidunak multzo inportantea dira Euskal Herrian eta multzo horren artean gazteak eta haurrak dira ezagutza maila altuen dutenak .

Erabilerako datuak ordea ez dira hain esperantzagarriak, kasu honetan ere, gazte eta haurrak dira gehien erabiltzen dutenak, baina ezagutzaren aldean, erabilerak nabarmen egiten du behera. Eskolan erabiltzen dute haur eta gazte horiek gehien euskara eta hala erakutsi digu Arrue Ikerketak (Arrue-ED 2011, 2012) baina eremu honetatik aldentzean erabilerak (zonalde ez euskaldunetan bereziki) behera egiten du.

Guk aurrera eramandako ikerketan Bilbon Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailtako ikasleetan ere joera hori ikusten dugu. Kasu horretan, autoktono eta etorri berrien konparaketa egiten genuen eta azken hauen kasuan erabilerak nabarmen behera egiten du. Kontuan hartu behar da, ikasle etorri berrien gehiengoa A eta B ereduetan matrikulatuta dagoela eta horrek datuetan eragina duela.

Hortaz, non eragin? Kasuan kasu, ikusi beharko da, baina beharrezkoa da bietan eragitea, nahiz momentu honetan, eta datuak eskuan izanda, argia da, erabilerak duela hutsunerik handiena. Hortaz, garrantzitsua izango da, erabileran indarrak jartzea, dakitenek erabili dezaten. Era berean, garrantzitsua izango da ere ez dakitenek ikasten dutenean, ikas dezatela baina beti ere saiatu beharko gera hizkuntza erakustea erabilerarekin elkarlotuta.

Eskola eremuan fokua jarrita, datuek diote gune hori bihurtzen dela askotan arnagune, baina badira ere eragin beharreko zantzuak. Zentzu honetan, A eta B ereduak duten gabeziak nabariak dira, argi baitago eredu hauetan ikasirik nekez euskalduntzen direla ikasleak. Bide horretan, neurriak jarriko beharko dira egoera horri aurre egiteko. D ereduak ere zailtasunak ditu ingurune ez euskaldunetan, eta horri begira ere bitartekoak jarri beharko dira. Ikasle etorkinetan ikusi dugu datuak bai ezagutzan zein erabileran ez direla bertakoen parekoak, besteak beste, gehiengoa, bertakoak ez bezala A eta B ereduetan matrikulatzen baitira. Beraz, aurrerapausoak eman beharko ditugu (materialgintzan, ereduen hautu horren zergatian...) ikasle horiek ere aukera berdinak izan ditzaten. Bestalde, eskolatik kanpoko guneetan edo gune informaletan erabilerara begira dauden hutsuneak kontuan izanda, bertan eragin beharko da. Erabilerara begira, motibazioan lantzea ezinbestekoa izango da, hori baita giltzetako bat, eta motibazio integratiboa eta instrumentala bultzatu beharko dira.

“Hizkuntza ala hiztunak jarri euskararen biziberritzearen oinarrian?” Garrantzitsua hizkuntza corpusa lantzea, euskara batua zein tokiko hizkuntza eta gazte hizkera. Euskararen alderdi fisikoaz gain alderdi soziala ere lantzea ezinbestekoa da. Bereziartua-k (2013) aurrera eramandako doktorego tesian euskararen erabileran gazte hizkerak eta tokian tokiko hizkerak duen garrantzia azpimarratzen du. Argi dago, bizirik iraun nahi duen hizkuntzak errealitate berrietara egokitu beharko dela. Kontuan izanda hizkuntza zenbat toki desberdinetan erabili daitekeen, leku bakoitzera eta testuinguru bakoitzera egokitu beharko da. Zentzu horretan, Zalbidek (2010: 178) dio euskarak aurrera egingo badu, etorri oneko hiztunak behar dituela, eskolatik kanpo ere, eguneroko bizitza arruntean aparteko lotsarik gabe euskaraz jardungo dutenak.

Horretarako, gazteak gaitasun nahikoa izan beharko dute, hizkuntza euren dela eta euren errealitatera egokitzen dela sentitu eta euskara erakargarri dela ikusi, hauen errealitate eta erreferentzietara egokituz. Izan ere, euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez da hizkuntza erabiliz gozatuko, eta azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da. Bide horretan, ahozkotatasunaren garrantzia nabarmena da eta ahozkotatasuna lantzea begira eskolan jarri beharreko indarra ere gakoetako bat da. Hortaz, hizkuntzaren alde fisikoarekin batera alde soziala lantzea ere ezinbestekoa izango da.

“Arnasguneak, ahulguneak, itoguneak, ahulguneak. Hiriak, herriak, ghettoak eta espazio hibridoak. Ba al dugu boterea eta interakzio ereduak birpentsatzeko beharrik?” Fishmanek diona gogoan hartuz, argi dago eskola arnasgune bat dela baina eskolarekin ez dela nahikoa eta hori erakusten digute berriki argitaratu diren Arrue ikerketako datuek. Hala, esparru guztietan eragin behar da, benetan eskolan inbertitutako indarrak gero beste testuinguruetan isla daitezen. Hortaz, familia, eskola eta gizarte inguru hurbilean eragin beharko da. Argi dago, eremu batzuk eragiteko eta planifikatzeko errazagoak direla eta beste batzuetan zailagoa izango dela eragitea, kalea kasu. Ikuspegi horretatik, ikuspegi komunitarioarekin jokatzeko asko lagundu diezaguke gure interbentzioak efikazago eta efizienteagoak izaten (Ander-egg, 1987). Horretarako, komunitateko elkarte zein agente desberdinen elkar-harremana garrantzitsua izango da. Eta kasu askotan, bakoitza gure aldetik ibiltzen gara, eskola alde batetik, herriko euskara elkarteak, komunikabideak bestetik... Hortaz, garrantzitsua izango da guztion arteko elkar harremana sustatzea ikuspegi komunitariotik. Bide horretan,

---

***Euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez da hizkuntza erabiliz gozatuko, eta azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da.***

**Ez ditugu bakarrik buruan espazio fisikoak direnak kontuan hartu beharko, harreman sareak garrantzitsuak izango dira zentzu horretan, espazio fisikoaren paretak gainditzen dituztenak. Eta testuinguru horretan, sare digitalen garrantzia eta bertan eragitearen beharra ezinbestekoa da. Bide horretan, komunikabideek eta interneten begia jartzea garrantzitsua izango da.**

Lasarte Oriako esperientzia adibide aproposa da. Bertan, herri maratoia antolatzen dute eta euskararen aldeko eguna antolatuz, euskara ahoan, herri guztiak eta bertako eragile eta agente desbedinek parte hartzen duten, herri maratoia antolatzen dute.

Baina kontu, ez ditugu bakarrik buruan espazio fisikoak direnak kontuan hartu beharko, harreman sareak garrantzitsuak izango dira zentzu horretan, espazio fisikoaren paretak gainditzen dituztenak. Eta testuinguru horretan, sare digitalen garrantzia eta bertan eragitearen beharra ezinbestekoa da. Bide horretan, komunikabideek eta interneten begia jartzea garrantzitsua izango da.

“Hiztun, erabiltzaile eta hizkuntza-identitate molde berriak: norantz doaz euskararen gutasunak?” Euskaldun vs Erdaldun dikotomia gaindituta? Errealitate berriei so, esan genezake dikotomia hori gainditu dela, izan ere askotan tarteko aukerak ere badirelako.

Honi gaineratu behar diogu, gure testuinguruan hizkuntza eta kultura berriak sartu direla. Uranga eta besteek (2008) egindako ikerketan 100 hizkuntzatik gora topatu dira EAE eta Nafarroan. Aniztasun hori ere eskolan izan du bere isla, Etxeberriak (2006) egindako ikerketan ikusi den bezala.

Baina ikasle etorri berri horiek eta euren familiak integratzen al dira bertako kulturari? Hau da, euskal kulturari? Datuak zentzu horretan ez dira oso positiboak. Zentzu horretan, garrantzitsua izango da, benetan ikasle etorri berriak gure kulturara gerturatu nahi baditugu, eredu integratibotik egitea eta ez asimilazio eredutik. Berry eta besteek (1989), proposatutako akulturazio estrategiarik jarraiki, ikusten dugu nola eredu integratiboak, identitate aditiboak sortzen laguntzen du, hau da, etorri berriak ez du bere kultura baztertzen eta harrera lurraldeko kultura jasotzen du. Hori da eredurik orekatuena baldin eta benetako integrazio bat lortu nahi bada. Cummins-ek (1979) dioen bezala, bakoitzaren kultura eta hizkuntza mantentzea garrantzitsua da, era berean horrek eragin positiboa duelako bigarren hizkuntza ikasterakoan. Hortaz, integrazio eta kulturen arteko bideak erabili beharko ditugu etorri berriek beren hizkuntza eta kultura galdu gabe, euskara eta euskal kultura beregana ditzaten.

“Zer gorde behar dugu egindakotik? Zertan jarri behar ditugu indarrak orain? Zer eskainiko diogu egingo dugunari?” Eskolak lan handia egin du hizkuntzaren berreskurapenean eta ezagutzaren transmisioan, egun,

gazte eta haurren ehuneko esanguratsu bat euskaldunak dira. Eskolan indarrak jartzea garrantzitsua da, baina ez da nahikoa.

Hortaz, non jarri indarrak?

Erabilerarako guneak potentziatu beharko dira, batzuetan gune formalak aprobeztatuz, eskolako klaseetan, patioan egin daitezkeen jardueretan... Baina baita ere eskolaz kanpoko jarduerak bultzatu beharko dira (Arruek ere garrantzia eman dio azken horri).

Harreman sareak hizkuntza gutxituen biziberritzean duten garrantzia ere hainbat ikerketak nazioarte mailan zein gurean duten eragina azalarazi dute (Clément, 1980; Skehan, 1989; Azurmendi et al, 1996; Arratibel, 1999; García, 2001; Martínez de Luna & Suberbiola, 2008; Cenoz, 2008; Berasategi, 2014...). Zentzu horretan harreman sare euskaldunak sustatu beharko dira, eta batzuetan horiek naturalak izango dira, baina beste batzuetan bultzatu egin beharko dira, eta bide horretan eskolaz kanpoko jarduerak izan daitezke jomugetako bat.

Metodologiari erreparatzea ere garrantzitsua izango da. Ikuspegi dialogikoak (Freire, 1997; Habermas, 1987), hizkuntzaren erabilera bultzatzeko bideak eskaintzen ditu, ikaslearen parte-hartze aktiboa bultzatzen baitu eta era berean elkarrikeria ikaste prozesuaren erdigunean kokatzen du. Zentzu horretan ere gela barruan ikuspegi kooperatiboak, elkarlana sustatzen du, harremanak sustatzen ditu eta eraginkorra izan daiteke ere euskararen irakaskuntzarako (Johnson & Johnson, 1994). Bestalde, eta aurreko bi metodologiaren filosofiarekin bat egiten duen ikuspegi komunitarioa (Ander-egg, 1987) indartzea garrantzitsua izango da. Lehen esan bezala, eskolaz kanpoko, bestelako elkarte, familia, zein erakunde desberdinekin harremanak sustatu eta bultzatu beharko dira, euskararen ezagutza zein erabileraren aldeko indarrak amankomunean bideratzeko eta era atomizatuan ez aritzeko.

Azkenik, beste batzuen artean garrantzitsua izango da curriculumaren barruan, ezagutza lantzen jarraitzea eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak sortzea (materialgintzan esaterako). Baina baita ere garrantzitsua izango da jarreraren eta motibazioaren lanketa curriculumean era planifikatuan jasotzea. Era berean, garrantzitsua izango da euskal kulturak eta bestelako kulturak duten balioa jasotzea eta horiei ere dagokien tartea eskaintzea curriculumean.

---

***Eskolak lan handia egin du hizkuntzaren berreskurapenean eta ezagutzaren transmisioan, egun, gazte eta haurren ehuneko esanguratsu bat euskaldunak dira. Eskolan indarrak jartzea garrantzitsua da, baina ez da nahikoa.***

---

**Gela barruan  
ikuspegi  
kooperatiboak,  
elkarlana  
sustatzen du,  
harremanak  
sustatzen ditu eta  
eraginkorra izan  
daiteke ere  
euskararen  
irakaskuntzarako.**

**Hiztun berrien bizipenak eta egungo hizkuntza politikaren  
erronkak euskararen normalizazioari begira.**

**Jone Goirigolzarri Garaizar**

Mahai-inguruan euskararen normalizaziorako gakoak mintzatzea egokitu zaigu euskal hiztun berriak prozesu horren erdigunean ezarriz. Eta badauka bai interesa euskal hiztun berriak galdegai hartzeak; izan ere, euskaldunen artean gero eta gehiago dira euskara familiarik kanpo ikasi dutenak —34 urtetik beherako kasuan erdia baino gehiago (Eusko Jaurlaritza, 2013)— eta pentsatzekoa da jatorrizko euskal hiztunen eta euskal hiztun berrien artean izango dela desberdintasunik beraien euskalduntasunaren eraikuntzan eta normalizazio prozesuari ekarpena egiterakoan. Intuzio horrek eraman gintuen euskal hiztun berrien gaineko ikerketa sakona burutzera, 2011az geroztik martxan dagoena. Hala, mahai-inguruko gai eta galderei erantzuten saiatzeko ikerketa horren emaitzak hartuko dira oinarri, hain zuzen, EAEko 56 euskal hiztun berrirekin egindako eztabaida-talde eta elkarrizketetako datuak. Aldi berean, azken 35 urteetako hizkuntza politikak eskainitako irakatsiak eta mahai gaineratutako erronka berriak ere kontuan hartuko dira.

“Euskararen normalizazioaren gakoak”, hortxe gaurko gaia; baina zeri deritzogu euskararen normalizazioa?, zeri normalizazio politika? Alegia, desabantaila edo gutxitu posizioan dagoen hizkuntza baten egoera soziolinguistikoa hobetzeko bideratzen den neurri multzoari (Goirigolzarri, 2015). Halaber, egoera soziolinguistikoa hobetze horretan maila eta helburu desberdinak bilatu daitezke. Pueyo eta Turull-ek (2003) hiru normalizazio maila bereizten dituzte: gutxiengo normalizazioa litzateke normalizazioaren objektu den hizkuntza gizarteko erabilera esparru guztietan presente egitea; normalizazio ertaina hizkuntza hori ezagutzen ez duten herritar guztiek ikastea; eta gehienezko normalizazioa hizkuntza ezagutzen ez dutenen integrazioa burututa, berau gizarteko mintzaira nagusi ala bakar bilakatzea. Euskal testuinguruan gutxiengo normalizazioa eta normalizazio ertaina dira euskararen egoera soziolinguistikoa hobetze bidean azken helburu moduan ezarri ohi diren normalizazio mailak. Baina maila baten zein bestearen lorpena urruti samar daukagu oraindik. Zer egin hurreratzeko? Herritarren euskara ezagutza handitzearen funtsezkoasuna eztaba daezina dela dirudi. Berriz, jakina da euskararen gizarte erabilera ezagutza baino are txikiagoa dela (ikus V. Mapa Soziolinguistikoa, 2014 eta Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa, 2011), euskara dakiten askok ez darabilte. Beraz, *gaur egun, urgentea erabilera datuak ezagutza datuekin parekatuz joatea da*. Eta horretarako, erabilerarako gakoak identifikatzea zentrala da.

Zeintzuk dira hiztun berrien ikuspegi eta esperientzian euskararen erabilera baldintzatzen, alegia, ahalbidetu ala oztopatzen duten gakoak? Batetik, euskara erabiltzeko aukera errealak izatea; erabat baldintzatua dagoena norberaren bizilekuaren errealitate soziolinguistikoagatik eta hizkuntza moduan euskara darabilten harreman sareetara sarrera izateagatik. Bestetik, inguruko euskaldunekin ezarritako hizkuntza ohiturak; izan ere, hiztun berrien bizipenean ohitura linguistikoak aldatzea oso konplexua da eta, beraz, harremanak euskaraz edota gaztelaniaz eraikitzeak eragin handia izan dezake hiztun berriaren praktika linguistikoan.

Dena dela, euskararen erabilerarako kanpo baldintzapenez gainera, hiztunaren barne baldintzapen indartsuak ere badaude. Batetik, hiztun berriaren hizkuntza gaitasuna. Zenbat eta gaitasun erreal edota hauteman handiagoa izan, orduan eta euskararen erabilera handiagoa egingo da. Aldi berean, hiztunaren jarreraren agentibitate maila ere zentrala da: hiztun berriak jarrera proaktiboa badu, sarritan euskararekiko barne balio (Amorrortu et al., 2009) eta kontzientzia maila altuak bultzatua, bere euskara ikasketa eta erabilera hobetzeko jarrera aktiboa hartuko du; berriz, jarrera errektiboa badu, testuinguruak ezarritako hizkuntzan jardungo du, izan hau euskara ala izan gaztelania. Azkenik, hiztun berriaren hizkuntza identitatea dago; hau da, hiztun berria zein motatako euskal hiztuna sentitzen den eta kategoria horri zein mailatako legitimitasuna eskaintzen dion.

Euskal hiztun berriek hizkuntza identitate desberdinak agertzen dituzte: badira beraien burua *euskaldun* moduan definitzen duten hiztunak eta *euskaldun-berri* moduan egiten dutenak. Baina bi adiera hauek ez dira neutroak; legitimitasun linguistikoarekin, hau da, benetako hiztun sentitzearekin lotura estuan baitaude (Ortega et al., 2013; Ortega et al., 2015). Horrela, euskaldun gisa definitzeko joera dute gorengo legitimitasun maila atxiki ohi zaien euskaldun zaharrendik gertu sentitzen diren euskal hiztun berriak; besteak beste, euskarazko gaitasun eta jarreraren handia dutelako, sarri euskalkian mintzo direlako, euskaraz bizi eta pentsatzen dutelako, eta euskararekiko atxikimendu sendoa dutelako. Ostera, euskaldun berri moduan definitzeko joera handiagoa dute zerbait faltan nabaritzen duten euskal hiztunak, legitimitasun sentitzen ez dutenak euren gaitasuna mugatua dela uste dutelako, egunerokoan euskara gutxi darabiltelako, etab. Areago, bada bere burua euskalduntzat jotzen ez duen euskal hiztun berririk ere; euskaraz hitz egiten jakitea eta euskalduna izatea gauza bera ez direla iritzita, euskara jakiteak ez dakarrelako nahita nahiez euskalduna izatea, sentitzea.

---

***Inguruko euskaldunekin ezarritako hizkuntza ohiturak; izan ere, hiztun berrien bizipenean ohitura linguistikoak aldatzea oso konplexua da eta, beraz, harremanak euskaraz edota gaztelaniaz eraikitzeak eragin handia izan dezake hiztun berriaren praktika linguistikoan.***

**Euskal hiztun berriek hizkuntza identitate desberdinak agertzen dituzte: badira beraien burua euskaldun moduan definitzen duten hiztunak eta euskaldun-berri moduan egiten dutenak. Baina bi adiera hauek ez dira neutroak; legitimotasun linguistikoarekin, hau da, benetako hiztun sentitzearekin lotura estuan baitaude.**

Hortara, argiki, *euskal hiztun berrien artean molde desberdinetako hiztunak ditugu; euskararen gutasunak anitzak, ugariak dira; eta profil aniztasun horren eraikuntzan hainbat aldagaik eragiten dute: euskara gaitasunak, jariotasunak, euskalkiaren erabilerak, herri euskaldun ala erdaldunean bizitzeak, euskararekiko sentimendu eta balioek, eta, nola ez, euskararen erabilera mailak: euskaraz bizitzeak, euskara ohikotasunez erabiltzeak, euskara noiz ala noiz erabiltzeak, edota ez erabiltzeak.*

Egiaz, euskararentzako gutasunak lortze bidean oinarrizkoa, ezinbestekoa euskara erabiltzea delakoan nago. Gure ikerketako eztabaida-talde batean 20 urteko oiartzundarrak esan zuen lez: *euskera erabiltzen dezunen ba zure hizkuntza bihurtzen da*. Erabileratik dator hizkuntza norberarena bihurtzea. Lorea Agirrek ere, horixe berori aldarrikatu zuen Korrikako azken mezuan: *hizkuntza erabiltzen duenarena da (...)* Egiten duguna gara. *Izatea egitea da* (Argia, 2015). Eta erabiliaren erabiliaz lortzen da gaitasuna, lortzen da jariotasuna, lortzen da atxikimendua.

Eta bide horretan, *zeintzuk lirateke aurrera begira euskararen normalizazioan aitzinatzeko gakoak?* Galdera honi sakontasunean erantzuteak luze eroango luke eta, beraz, hurrengo lerroetan ildo batzuk baino ez dira xehatuko.

Hasteko, euskara normalizatzeko eta euskararen gutasunak eraikitzeke erabilera gako bada, mintzatzeko aukerak ugaritzea, erreal bihurtzea, nahitaezkoa da. Horretarako, euskararen arnasmune geografiko eta sozioduntzionalak (Inda, 2014) babestu eta hedatzeko politika aktiboa beharrezkoa da. Era berean, *bada garaia interakzio ereduak birpentsatzeko, erabilera eredu berriak indartu eta legitimatzeko*. Kasurako, elkarrizketa elebidunak (Ruiz, 2014); izan ere, elkarrizketok euskara gaitasun txikia dutenak progresiboki berau erabiltzen hastea errazten du eta, aldi berean, euskaraz bizi nahi dutenei erabilera aukerak itzel ugaritzen dizkie, jolaskideak euskara ulertzea nahikoa baita norberaren jarduna euskaraz burutzeko.

Dena dela, arestian esan bezala, helmuga euskararen normalizazioa bada, euskal hiztun berri gehiago behar ditugu; alegia, euskararen eza-gutza, edota behintzat bere ulermena, unibertsalizatu beharra dago. Izan ere, ulermen orokortua lortu eta elkarrizketa elebidunak legitimatuz gero, estres linguistikoa (Badu Bada, 2012) nabarmen murriztuko litzateke eta euskaraz bizitzeko aukera egiazko bihurtu. Gainera, hizkuntza eskubideen ildoan, hizkuntza hautua ere, euskaraz edo gaztelaniaz jarduteko aukera, bermatuko litzateke. Horrela, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak (2005) defendatu bezala, ni ere

euskararen ezagutza unibertsalizatzeko, besteak beste, hezkuntza sistematik ume eta gazte guztiak euskalduntzeko neurriak hartzea eta helduen kasuan euskara ikasteko aukera eskaintza zabala eta doakoa lortzea zentralak direlakoan nago.

Baina ekimen politiko guztiok arrakastatsuak izateko maila diskurtsiboan ere lan handia dago egiteko. Beste behin ere, Lorea Agirrerekin (2012) bat nator: euskararen normalizazioan asko irabazi den arren, galdu ere egin da, hain zuzen, normalizazio eta hizkuntzaren defentsaren diskurtsoan galdu dugu. Eta horrek euskararen aldeko diskurtsoaren berritze, eraldatze beharra inoiz eta premiazkoena bihurtu du, azken urteetan inposizioaren diskurtsoak bizi izandako hedapena kontuan hartuta, baita euskararen aldeko hainbat sektoretan ere. Ataka honetan inposizioaren diskurtsoa irauli beharra dago, bere lekuan justizia sozialaren diskurtsoa orokortuz gizartean (Agirre in Arbelaitz, 2015); finean elkarbizitza bidezkoa, demokratikoa, orekatua lurraldeko bi hizkuntza ofizialen ezagutzatik datorrela sozializatu beharra daukagu.

Euskararen diskurtsoa berritze lanetan asko dira landu beharreko gaiak, baina begirada hiztun berrietan jarrita dugun honetan, kolektibo hauxe euskal hiztun moduan legitimatzeko diskurtso sendo bat eraikitzeo beharra ere larria da. Ildo horretan euskararen gutasun guztiak baliotzea nahitaezkoa dugu, euskaldun izateko modu anitzak euskal komunitatearen alde jarritz. Egiteko horretan, aproposa litzateke euskaldun zahar - euskaldun berri etiketak gure mintzotik alboratzea, “denak gara euskaldun” aldarripean euskaldun etiketa errebindikatuz.

**Hiztun berriak eta euskararen normalizazioa:  
ekarpen batzuk hizkuntzen didaktikatik.**

**Ibon Manterola**

Hizpidea eman diguten galderei erantzuten hasi aurretik, hizkuntzen didaktika diogunean zer esan nahi dugun argituko dugu. Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza ikertzeaz arduratzen den arloa da hizkuntzen didaktika (Dolz eta beste, 2009). Sistema edo hiruki didaktikoko hiru osagaien (irakasle, ikasle eta hizkuntza/hizkuntzen) arteko erlazio konplexuak aztertzen ditu, eta bere ikergai nagusia eskolaren testuinguruan gertatzen den hizkuntzen ezagutzaren eta praktikaren jabeakuntza prozesua da. Hizkuntzen didaktika ez da, beraz, hizkuntzen irakaskuntzaren praktikara mugatzen den arloa bakarrik, baizik eta, baita ere, praktika hori ikertzeaz arduratzen den arloa.

---

***Euskararen  
ezagutza, edota  
behintzat bere  
ulermena,  
unibertsalizatu  
beharra dago.  
Izan ere, ulermen  
orokortua lortu  
eta elkarrizketa  
elebidunak  
legitimatuz gero,  
estres  
linguistikoa  
nabarmen  
murriztuko  
litzateke eta  
euskaraz  
bizitzeko aukera  
egiazko bihurtu.***



**Euskararen gramatikari eta erabilerari buruzko arauak testuen ekoizpena lantzeko tresna gisa hartu behar dira, eta ez aparteko ezagutza isolatu beregain gisa. Jakina da honez gero euskararen deklinabide eta adizki taulak buruz ikastea ez dela eraginkorra euskararen erabilera lantzeko.**

Hiztun berriek euskararen normalizazioan daukaten eta izan dezaketen garrantziaz hitz egiteko hizkuntzen didaktika eta zehazki euskararen didaktika esparru pribilegiatua da. Ez da alperrik eskola euskararen normalizaziorako tresna funtsezkoa: “sin escuela que euskaldunice de forma extensa e intensa no hay ya futuro para el euskera” (Zalbide, 1998: 368). Datu kuantitatibo batzuk ematearren bakarrik: EAEko LH 4. mailan ikasleen %53 euskaldun berria da, eta derrigorrezko bigarren DBH 2. mailan, berriz, %47.

“Ezagutza ala erabilera da gure erronka nagusia? Zer da urgentea eta zer da inportantea?” Euskararen ezagutzaren eta erabileraren auzian, euskararen ezagutza eskolarekin eta erabilera kalearekin lotzea saihestu behar da (Amezaga, 2013). Ezagutza eta erabilera, biak lantzen dira bai eskolan eta baita kalean ere, eta oro har, sozializazioaren esparru guztietan.

Hizkuntzen didaktikaren ikuspegitik, oso zeregin zaila da euskararen ezagutza ala erabilera, erronka nagusia bietatik zein den erabakitzea euskararen normalizazioari begira. Are zailagoa bikote honi hirugarren osagaia gehituz gero: motibazioa, jarrera edo atxikimendua. Hirurak baitira funtsezko helburuak euskal eskola eleaniztunarentzat (Idiazabal eta beste, 2015). Argi dezagun, dena dela ere, zer ulertzen dugun hizkuntzaren ezagutzaz eta zer erabileraz (Dolz eta beste, 2009; Idiazabal eta beste, 2015): ezagutza, hizkuntzaren funtzionamenduari eta egiturari buruzko ezagutzari dagokio; eta erabilera, berriz, askotariko testuinguru komunikatiboetan ahozko eta idatzizko testuen ekoizpenari.

Hauek horrela, argi dago euskal eskolaren erronka nagusia ikasleei euskara erabiltzen irakastea dela, curriculumek argi dioten moduan. Erabilera, gainera, ahozkoa zein idatzizkoa, eta ulermenaren zein ekoizpenaren aldetik. Gainera, erronka horri jatorri soziolinguistiko oso ezberdineko ikasleak tartean direla heldu behar dio eskolak, adibidez, ingurune oso erdaldunetako familia erdaldunetan hazitako ikasleak.

Eta euskararen erabilera helburu nagusia bada, zein leku dauka euskarari buruzko ezagutzak? Euskararen gramatikari eta erabilerari buruzko arauak testuen ekoizpena lantzeko tresna gisa hartu behar dira, eta ez aparteko ezagutza isolatu beregain gisa (Idiazabal, 2008). Jakina da honez gero euskararen deklinabide eta adizki taulak buruz ikastea ez dela eraginkorra euskararen erabilera lantzeko. Aldiz, adibidez, aginterako adizkien ariketak errezeta testuetan egitea oso eraginkorra izan daiteke ikasleek adizki horiek errezetak idazterakoan nola erabili trebatzeko. Baina honetarako ez dago agintera adizkien paradigma modu beregainean

hartu eta ikasleei buruz ikasarazi beharrik. Beraz, eskolan funtsezkoa euskararen erabilera sustatzea da, euskararen sistemari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza helburu horren zerbitzura jarrita.

“Hizkuntza ala hiztunak jarri euskararen biziberritzearen oinarrian?”. Hizkuntzaren funtzionamenduan, dimentsio diskurtsiboa egiturazkoaren aurretik dago, alegia, hizkuntzaren erabilerak moldatzen ditu hizkuntzaren alderdi morfosintaktiko eta lexikoak (Bronckart, 1996). Edo Anjel Lertxundik Berrian (2015-05-07) idatzi zuen bezala: “Hizkuntza dinamikoa da, hazi edo erkindu egiten da, hiztunen eguneroko martxak aldatu, moldatu, itxuraldatu egiten du onerako zein txarrerako. Biziok ematen diogu bizia hizkuntzari”.

Euskararen kasuan, oso gertakari soziolinguistiko interesgarria da hiztun mota “berri” bat hedatu dela murgilketa goiztiar bidezko eskolatzeari esker: etxean erdaldun izanda, txikitatik eskolan euskara ikasi duena. Hiztun mota honen barruan askotariko sailkapenak egin daitezke, hiztun berriaren harreman esparruen ezaugarri soziolinguistikoen arabera. Gure ustez, hiztun mota guztiek daukate zilegitasuna hizkuntza erabiltzeko, moldatzeko, (des)itxuratzeko, eta hori, noski, hiztunen unean uneko behar komunikatiboen arabera gertatuko da. Alde honetatik, euskararen erabileren (eta ondorioz, alderdi estrukturalen) aniztasunak ez du mugarik.

Euskararen didaktikarentzat galdera da ea nola jokatu behar den eskolan aniztasun honen aurrean. Eta askori burura datorkiona da, adibidez, ea euskara batua bakarrik irakatsi behar den ala euskalki eta gainerako aldaerak ere irakatsi behar diren. Argi dago eskolak bermatu egin behar duela ikasleek euskara batuan irakurtzen, idazten eta hitz egiten ikastea. Baina helburua ez da euskara batuaren ezaugarriak zein diren ikastea (gramatika, hiztegia), baizik eta ikasleek ahozko eta idatzizko testuak euskara batuan ekoizten ikastea.

Batua irakatsi beharrak ez du, ordea, hizkera eta idazkera aniztasuna baztertu behar denik esan nahi. Unibertsitate irakasle gisa dugun ibilbidean ondotxo ikusi dugu mendebaldeko euskaretan jardun ohi duten gazteek ederki idazten dutela batuan, baita ahozko azalpenak batuan ederki asko egin ere. Edo etxean gaztelaniaz hazi, eskolan euskaldundu, eta ingurune oso erdaldunetatik datozen hiztun berri gazteek ere idatzizko zein ahozko testu bikainak ekoizten dituzte euskara batuan, nahiz eta gelatik kanpo oso bestelako ahozko euskaran jardun.

---

**Argi dago  
eskolak bermatu  
egin behar duela  
ikasleek euskara  
batuan  
irakurtzen,  
idazten eta hitz  
egiten ikastea.  
Baina helburua  
ez da euskara  
batuaren  
ezaugarriak zein  
diren ikastea  
(gramatika,  
hiztegia), baizik  
eta ikasleek  
ahozko eta  
idatzizko testuak  
euskara batuan  
ekoizten ikastea.**

**Eskolaren arnasmune izaera horri behar besteko etekina atera ahal izateko, kontuan hartu behar da eskolak ikasleak euskalduntzeko egitasmoaren arrakasta edo porrotaren gakoa ez dagoela eskolan bakarrik. Eskolaz kanpo euskara ez badago presente haur eta nerabeen sozializazio esparruetan, nekez baliatuko da eskolaren lana.**

“Arnasmuneak, ahalguneak, itoguneak, ahulguneak. Hiriak, herriak, ghettoak eta espazio hibridoak. Ba al dugu boterea eta interakzio ereduak birpentsatzeko aukerarik/beharririk?” Hitztun berrientzat berebiziko garrantzia daukan arnasmunea eskola da, hizkuntzaren ikaskuntzaren ardura nagusia eskolak hartzen duelako, bereziki euskara gutxi egiten den auzo, herri eta hirietan. Ardura hori irakasleena bakarrik ez, eskola osoarena da, harena baita etxean erdaraz hazten ari diren haurrak eskolan euskalduntzeko hizkuntza proiektuaren ardura. Ezagunak dira, esate baterako, irakasleen estrategia bereziak haur hiztun berrien hizkuntzaren ikaskuntza bideratzeko (Mard, 1995). Halaber, badakigu haur hezkuntzatik lehen hezkuntza bukatu arte hitzun berriek euskararen ekoizpenean garapen argia egiten dutela euskararen alderdi diskurtsibo eta gramatikal askotan (Manterola eta beste, 2013). Baina era berean, argudiatu izan dugu haur hezkuntzako curriculumetako eta hainbat material didaktikotako jarraibide eta proposamen didaktikoetan badagoela zer zehaztua eta hobetua haur hiztun berrien euskararen erabileraren ikaskuntza eraginkorragoa izateko (Manterola, 2011).

Dena dela, eskolaren arnasmune izaera horri behar besteko etekina atera ahal izateko, kontuan hartu behar da eskolak ikasleak euskalduntzeko egitasmoaren arrakasta edo porrotaren gakoa ez dagoela eskolan bakarrik (Zalbide, 2010). Eskolaz kanpo euskara ez badago presente haur eta nerabeen sozializazio esparruetan, nekez baliatuko da eskolaren lana.

“Hitztun, erabiltzaile eta hizkuntza-identitate molde berriak: norantza doaz euskararen gutasunak?” Ortega eta besteren (2014) lanean ikus daitekeenez, askotarikoak dira hitzun berriek dauzkaten hizkuntza-identitateak. Hainbat faktore sartzen dira jokoan (adibidez, euskara erabiltzeko aukerak, euskalkiak eta aldaera informalak menderatzea) eta haien eraginez, batzuek euskaldun berritzat jotzen dute euren burua, beste batzuek euskalduntzat, eta badira, baita ere, euskalduntasuna euskararekin baino, Euskal Herrian bizitzearekin lotzen dutenak.

Hitztun berrien euskararekiko atxikimendu eta jarrerak euskararen erabilera indartzera bideratu behar dira eta hau ez da, noski, eskolaren zeregina bakarrik. Hedabideetan eta bestelako eragileetan askotariko euskararen erabilerari buruz zabaltzen diren iritziek mesedegarri izan behar dute, eta ez kaltegarri. Argi dago euskalkiak menderatzeak hitzun berriei euskaraz egiteko bultzada ematea oso garrantzitsua dela, batez ere euskalki tradizionalak belaunez belaun iraun duten inguruetan. Euskal hitzunak areagotzeko bitartekoak dira hor euskalkiak. Baina

oso bestelako kontua da euskararen hiztun berri guztiak euskalkietatik pasaraztea, euskalkian egitea euskararen hiztun legitimotzat hartzeko baldintza bakar balitz bezala. Eskolan gai hauek lantzekotan, hiztun berriekin bezainbeste etxetik euskaldun datozenekin egin beharko litzateke. Oso erdaldun diren inguru askotan euskararen hiztun berriek euskaraz jarduteko egiten duten indarra eta euskarari dioten atxikimendua eredugarri jo behar luke euskal hiztunen komunitateak, eta bereziki ingurune euskaldunetan bizi diren eta etxetik euskal(ki)dun diren hiztunek.

“Zer gorde behar dugu egindakotik? Zertan jarri behar ditugu indarrak orain? Zer eskainiko diogu egingo dugunari?” Etxetik erdaldun datozen haurrak eskolan euskalduntzearen pareko prozesua munduan hizkuntza komunitate ahuldu gutxi lortu dute. Mundu osoan gurasoak dudarik gabe haurren eleaniztasunaren alde daude, baina normalean hizkuntza handietako eleaniztasunaren alde. Euskal Herriko gurasoak ez dira salbuespena ingelesa bezalako hizkuntzekiko mirespenean, baina hemen lortu da euskara bezalako hizkuntza ahul bat eleaniztasunarekin lotzea. Eta honek meritu izugarria du, bai noski Lekeition edo Usurbilen, baina batez ere Lizarran eta Barakaldon, guraso gehienek euskaraz ez dakiten lekuetan.

Argi dago, zentzu honetan, eskolak asmatu duela oso zaila zen (eta den) zeregin horretan. Eta segi beharko du bide beretik, euskararen irakaskuntzarako (eta batez ere, ahozkoaren irakaskuntzarako) baliabide didaktiko eraginkorrak sortzen, esperimintatzen eta hedatzen. Eskola ez bestelako gizarte eragileei tokatzen zaiena da eskolan euskara ikasitako hiztun berrientzat erabilera esparruak indartzea. Azkenik, uste dugu euskararen hiztun komunitateak hiztun berrien askotariko euskarak bere egin behar dituela, ulertuaz hiztun berri askoren baldintza soziolinguistikoak oso zailak direla euskararen erabilera sendoa lortzeko.

## ERANTZUNAK

I

**Aniztasuna aintzatestearen garrantzia:  
komunikabideak gizartearen isla gisa.**

**Gorka Salces**

Solaskide guztien hausnarketak adi irakurri ostean, asko pozten nau lan esparru desberdinetatik diagnostiko komun zenbait egin izan ditugula berresteak. Partekatutako ikuspuntu horiek iradoki didatena aletzera noa jarraian, azken ekarpen gisa.

Naiara Berasategik nabarmentzen duenez, haurren eta gazteen adin-tarteetan dago euskaldun tasarik altuena. Komunikabideen eskaintza aniztasunari dagokionez, haientzat propio landutako komunikabiderik ez da falta (*Irria, Gaztea, Gaztezulo...*), baina adin aldetik transbertsalagoak izan behar duten hedabideetan (telebistan, kasu) gazteentzako saioen falta nabarmena da, Azpillagak nabarmentzen duenez (Azpillaga, 2014). Hizkuntza erabilerarako espazioak askotarikoak dira, eta modu aktiboan (aurrez aurreko elkarrizketetan) euskaraz mintzo ez diren gazteentzat, bederen pasiboki hizkuntza erabiltzeko bidea izan daitezke komunikabideak. Horretarako, baina, adin horretako ikus/entzule/irakurleen ezaugarrietara egokitutako edukiak landu behar dira. Arestian aipatu lez, hizkerak berebiziko garrantzia du erabiltzailea komunikabidearekin identifikatu dadin, eta gazte hizkeren lanketa propioa egiteko apustua testuinguru horretan kokatuko litzateke.

Hizkeraren gaiarekin jarraituz, eta Jone Goirigolzarrik euskaldun berrien autokategorizazioari buruz esandakoaren ildotik, komunikabideak euskaldun berriek hiztun gisa duten zilegitasuna lantzeko plataforma paregabeak izan daitezkeela nabarmendu nahiko nuke. Horrek, beste behin, hizkeraren aldetik egokitzapena eskatzen die komunikabideei, zuzentasuna kolokan jarri gabe hizkuntza forma hibridoek bide emanez, eta era horretara adierazkortasun molde berriak landuz. Berriz ere diot: *ez da hain fazila*. Hala ere, ezin dugu ahaztu zenbaitetan komunikabideek teknizismo eta neologismoen inguruko pedagogia egiteko erabili behar direla (Sarasua, 2013: 242).

Bestalde, Berasategik nabarmentzen du bertan jaiotakoen eta kanpoan sortutako euskal herritar gazteen artean alde handia dagoela erabilerari dagokionez. Kulturartekotasuna lantzeko gune estrategiko izan behar dute haur eta gazteentzako komunikabideek, adin-tarte horietan baita aniztasuna beste ezeinetan baino nabarmenagoa. Jatorri pluraltasun hori islatzen dakiten heinean euskarazko komunikabideek Euskal Herritik kanpo jaiotako euskal herritar gazteengan erakarmen indarra izango dute. Betiere kontuan hartu beharko da egokitutako edukiak beharko direla, Berasategik azaltzen duen moduan A eta B eruedetan ikasten baitute euskal herritar berri gehienek. Hortaz, euskal hiztun komunitatearen baitako aniztasuna gero eta agerikoa da, eta, Goirigolzarrik aditzera eman duenez, euskalduntasuna eraikitzeko moduetan desberdintasun nabarmenak egon daitezke hiztun berrien eta zaharren artean. Erdara(k) ama hizkuntza d(it)ugun euskaldunok komunitatearen proportzio gero eta handiagoa hartzen dugula kontuan harturik, gizarte

sektore horren ikuspegiak eta bizipenak txertatzen jarraitu behar dute euskarazko komunikabideek, geografikoki (eta ondorioz, kulturaliki) trinkoa ez den hiztun taldearen pluraltasuna islatuko badute.

Halaber, nor bere esparrutik, Berasategik zein Manterolak ohartarazi dute eskola euskararen arnasmune izan badela, baina ezin dela belaunaldi berrien euskalduntze lana bakarrik esparru horren eskuetan utzi. Bada, komunikabideak arnasmune funtzional izan daitezkeela argudiatu dut lehenago ere, eta beste eragileek egindako lanaren osagarri dela berrestera noa oraingoan. Euskarazko komunikabideek aurrera egingo badute ulermen eta irakurmen gaitasun nabarmena (izango) duten haur eta gazteak behar dituzte, eta eskolak aliatu ditu komunikabideak euskalduntze ahalegin guztia hutsean geldituko ez bada. Aldi berean, irakaspen gramatikaren mugak gainditzeko eta ikasitakoa kasu praktikoekin lotzeko bidea izan daitezke hedabideak. Manterolak jarritako adibidea segituz, aginterazko aditzen erabilgarritasuna frogatzeko bidea izan daiteke egunkarian irakurritako errezeta, eta alde horretatik teoriaren eta praktikaren arteko zubilana gorpuzten dute komunikabideek, alegia, euskarri fisikoa (edo digitala) eskaintzen diote konexio horri.

Goirigolzarrik aipatzen du elkarrizketa elebidunek euskaraz gaitasun txikia dutenentzat aurrerapausu bat izan daitekeela, eta erdarazko komunikabideetan euskararen presentzia areagotzeak ere lagunduko luke hiztun komunitatearen ertzeetako kideek noizbehinkako erabilerara salto egin dezaten. Esan gabe doa, hori irtenbide partzial eta oso mugatua baino ez litzateke izango, Zuberogoitiak dioenaren ildotik (Zuberogoitia, 2003: 69-70). Aitzitik, euskararen erabileran hutsetik hasten denarentzat ezer gutxi erabiltzera pasatzeak badu bere garrantzia; horretarako erdaldunen munduan ere ikusgaitasuna lortu behar du euskarak, erdaldun horiek elebakarrak edo euren burua erdalduntzat duten elebidunak izan.

Goirigolzarrik azaltzen duenez, euskara inposatzen ari garen diskurtsoak indarra hartu azken urteotan, eta horren ordez justizia sozialaren ikuspegia hedatzen saiatu beharko ginateke. Alabaina, Eusko Jaurlaritzaren publizitate instituzionalaren %98 erdarazko komunikabideetan jartzen den honetan (*Argia*, 2014), euskaren aurka argi eta garbi egiten duten zenbait bozgorailutik jaurtitako mezuak neutralizatu ahal izateko komunikabideen arloko diru-laguntza politikak bidezkoagoa izan beharko luke. Euskarazko hedabideek berezko diru partida jasotzen duten arren, ez du ematen publizitate arloko desoreka berdintzeko nahikoa denik.

---

***Euskarazko komunikabideek aurrera egingo badute ulermen eta irakurmen gaitasun nabarmena (izango) duten haur eta gazteak behar dituzte, eta eskolak aliatu ditu komunikabideak euskalduntze ahalegin guztia hutsean geldituko ez bada.***

Inposizioaren diskurtsoa lantzen dutenek (berez, erdaraz aritzeagatik abantaila dutenek) diru gehiago jasotzen badute, jai dugu euskararen inguruko bataila diskurtsiboan.

#### **Sekuentzia didaktikoak hiztun berrien ahozko jarduna**

##### **lantzeko tresna didaktiko gisa.**

**Ibon Manterola**

Jone Goirigolzarrik artikulu honetan erakusten dituen datuek oso argi uzten dute euskaraz jarduteko gaitasunak asko eragiten duela hiztun berrien euskararen erabileran. Naiara Berasategik ere, Zalbide (2010) aipatuta, eskolan bakarrik ez, eskolatik kanpo ere “etorri ona” izango duten euskal hiztunen beharra nabarmentzen du. Ahozko euskara lantzeko sekuentzia didaktikoei (SDei) buruzko lanak badira (Garcia-Azkoaga eta beste, 2012), baina hemen arreta berezia jarri nahi genuke baldintza soziolinguistiko erdaldunetan bizi diren ikasle hiztun berriengan. Nola atera ahalik eta zuku gehien ahozko euskara lantzeko SDei, etxean nagusiki erdaraz hazi eta euskara kalean apenas egiten den inguruan bizi diren ikasleen kasuan? Erantzunean irizpide orokor batzuk bakarrik emango ditugu, eta ez dugu SD zehatzik proposatuko. Saiatu gara artikulu honetan bertan gainontzeko parte hartzaileek idatzitako hainbat ideia interesgarri gure proposamenarekin lotzen. Aurrena, ordea, sekuentzia didaktikoak zer diren azalduko dugu, modu nahikoa arinean bada ere, artikuluaren tamainaren mugak tarteko.

Sekuentzia didaktikoak ahozko eta idatzizko testu-generoen ulermena eta ekoizpena modu sistematikoan eta fidagarritasun didaktiko minimo batekin irakasteko baliabide didaktikoak dira (Larringan & Idiazabal, 2012). SDetan, ikasleek proiektu komunikatiboak gauzatzen dituzte, horretarako bitartekoak testu-generoen ekoizpenak direlarik. Hau da, ikasleak komunikatiboki zentzua daukaten proiektu eta egoeretan murgiltzen dira, eta egoera horietan jarduteko testu-generoak ekoizten ikasten dute SDen bidez. Adibidez, proiektu komunikatiboa baldin bada udal gobernuari udalbatza batean jendaurreko eskaria egitea eskolarako bidean dauden espaloiak konpon ditzan, proiektu hori gauzatzeko ikasleek ekoizten ikasiko duten testua jendaurreko ahozko eskaerarena izango da. Eta SDan zehar askotariko jardueren bidez landuko dute, besteak beste, jendaurrean azalpenak nola eman, eskaerak nola egin eta haiek nola argudiatu.

Garbi dago eskola euskararentzako arnagunea bakarrik ez, baizik eta euskaraz ikasteko esparru nagusia dela hiztun berrientzat, batez ere ikasleen sozializazio goiztiarrean. Baina eskolaz gain, eta Salcesek ida-

tzitakoaren ildotik, tokiko hedabideak ere halako inguru erdaldunetan euskararen arnagune izan daitezke, euskaraz aritzeko aukera eman dezakete-eta. Eskola eta tokiko hedabideak uztartzea aukera bat izan daiteke ikasle hiztun berrien ahozko jarduna lantzeko. Horretarako, SDetako proiektu komunikatiboa eta ahozko testu-generoaren askotariko alderdiak lantzeko jarduerak ahalik eta modu eraginkorrean ustiatu litezke. Bi bide proposatzen ditugu:

## **1) Proiektu komunikatiboa tokian tokiko hedabideetan gauzatzea**

Sekuentzia didaktikoen metodologian oso ohikoa da ikasleek proiektua gelan edo eskolan bertan gauzatzea, adibidez, ahozko azalpen bat eginez ondoko gelakoei. Gero eta gehiago baliatzen da, baita ere, ikas-tetxearen bloga eskola komunitate osoari erakusteko proiektuetan gauzatutako testuak. Guk proposatzen duguna da proiektu komunikatiboa hedabideetan bertan gauzatzea. Adibidez, proiektu komunikatiboa izan liteke eskualdeko irratian edo telebistan elkarrizketak egitea ikasleei interesa pizten dieten pertsonaiei, edo interesekoak diren gaien inguruan. Izan liteke, baita ere, eskualdeko irratian edo telebistan egingo litzatekeen debate batean parte hartzea ikasleek. Edo beste aukera bat: ikasleek eskualdeari buruzko gida turistiko bat prestatuko lukete, ikus-entzunezkoa, eta tokian tokiko hedabideek zabalduko lukete.

## **2) Tokian tokiko hedabideetako edukiak sekuentzia didaktikoan baliatzea**

SDetan askotariko ahozko eta idatzizko testuak ekartzen dira gelara proiektu komunikatiboan gauzatu beharreko testua ekoizten ikasteko. Batzuetan, eskolatik kanpo idatzi den testu bati erantzuna emateko sortzen da proiektu komunikatibo osoa (adibidez, herriko aldizkarian agertu den iritzi gutuna irakurri, eta erantzun). Edo SDan landu beharreko generoaren hainbat alderdiri buruzko jardueretan irakurri, entzun, ulertu, hobetu eta aldatu behar izaten diren testuak ere ugari izaten dira. Gure proposamena litzateke testu hauek aukeratzerakoan, ikasleen herri edo eskualdeko euskarazko hedabideetan sortutakoak bereziki kontuan hartzea. Noski, irakasleen ardura da testu horiek behar bezala egokitzea, bai proiektu komunikatiboan helburua den ahozko testu-generoaren ekoizpena behar bezala bideratzeko, edo baita ariketetan genero horren dena delako alderdiak lantzerako bideratzeko.

Irizpide didaktiko orokor hauek bi onura nagusi izan ditzakete gure ustez:

---

**Garbi dago eskola euskararentzako arnagunea bakarrik ez, baizik eta euskaraz ikasteko esparru nagusia dela hiztun berrientzat, batez ere ikasleen sozializazio goiztiarrean. Baina eskolaz gain, tokiko hedabideak ere halako inguru erdaldunetan euskararen arnagune izan daitezke, euskaraz aritzeko aukera eman dezakete-eta.**



## **1) Ikasleek hedabideak euskara lantzeko eta erabiltzeko esparru gisa ustiatzeko aukera**

Hiztun berri ikasleek eskolaz kanpoko komunitatean euskaraz aritzen den hedabideen esparrua ezagutuko lukete, bai eta esparru horretan sortzen diren ahozko zein idatzizko edukiak euskaraz lantzeko eta berreganatzeko aukera izan ere. Honek bidea ireki lezake euskara eskolako hizkuntza hutsa izan ez dadin, eta aldiz, balio dezan, irratia edo telebistako edukiak kontsumitzeko. Honela, eskola ez bestelako soziazializazio esparruak (hedabideena kasu honetan) euskararen lanketarako eta erabilerarako gune izango lirateke.

## **2) Sekuentzia didaktikoko proiektu komunikatiboen baitan, eta hedabideak bitartekari izanda, komunitateko eragileekin euskarazko harreman sareak eraiki litzakete ikasleek.**

Tokian tokiko hedabideetan lantzen diren edukiak sarritan elkarte eta eragileen egitasmo eta ekintzei lotuta daudenez, eduki horiek euskaraz izateak eragile horiek euskaraz gehiago jardutea eta euskara gehiago lantzea ekar lezake. Gure irizpide didaktiko orokorrak jarraituta, ikasleak hedabideen eta eragileen arteko harreman sareetan txertatzea lortuko litzateke, Berasategik aipatutako hezkuntzaren ikuspegi komunitarioa sustatuz. Esate baterako, demagun SD batean ikasleek gauzatu beharreko proiektu komunikatiboa euskaraz abesten duten herriko musikari gazteei irratia elkarrizketa bat egitea dela. Kontuan hartuta ingurune erdaldun batean kokatuta gaudela, ez litzateke batere harrizkoa euskaraz abesten duten musikari gazteek, ikasleek bezalaxe, gehiago ala gutxiago gaztelaniarako joera izatea ohiko elkarrekintzetan. Baina irratia elkarrizketaren proiektu komunikatiboa euskaraz litzatekeenez, ikasleek elkarrizketa hori prestatzeko musikariekin izango litzaketen askotariko harreman eta elkarrekintzetan agian ohiko jardunean baino euskara gehiago erabiliko litzateke. Eta noski, proiektuaren gauzatzea, irratia elkarrizketa bera, euskaraz izango litzateke.

Bukatze aldera, azpimarratu nahi genuke sekuentzia didaktikoen helburua betidanik ikasleen ahozko eta idatzizko erabilerak lantzea izan dela. Gertatzen dena da lanketa horren erronkak ez direla berberak SDetako hizkuntza eskolaz kanpo asko erabiltzen den testuinguruetan, edo hizpide dugun kasuetan bezala, eskolaz kanpo hizkuntza horrek erabilerara ahula duenean. Horregatik, ikusita Goirigolzarrik hemen bertan esan duen moduan ze funtsezkoa den hiztun berrien kasuan euskara erabiltzeko

aukera errealak sortzea, SDak diseinatzerakoan eskolaz kanpoko euskarazko harreman sare eta esparruak kontuan hartzea ezinbestekoa dirudi. Honek bidea eman lezake, gainera, Arrue Proiektuko emaitzen harira asko idatzi den ideia bat garatzeko: eskolaz kanpoko sozializazio esparruetako eragileen beharra dago ikasleen euskararen erabilera indartzeko.

**Eskola eta ikuspegi komunitarioa:  
ikasleen ahotsak eta askotariko errealitateak.  
Naiara Berasategi**

---

***Eskolaz kanpoko  
sozializazio  
esparruetako  
eragileen beharra  
dago ikasleen  
euskararen  
erabilera  
indartzeko.***

Galdera desberdinen harira eta ikuspegi desberdinetatik abiatuz hainbat dira luzatu diren gogoeta eta proposamenak aurreko ataletan. Gorka Salcesek dioen moduan, nahiz eta ikuspegiak askotarikoak izan, hainbat dira adierazi diren puntu komunak. Planteatzen zitzaizkigun galderetatik azkenekoan jarriko dut arreta, iruditzen zaidalako ekarpenak egiteko aukera gehiago eskaintzen duela. Galdera horren harira, Salcesek, Manterola eta Goirigolzarrik hainbat proposamen luzatu dituzte. Ni luzatutako proposamen horietako batzuez baliatuko naiz eta eskola eremura ekarriko ditut. Baina argi utzi nahiko nuke, eskolako eremua ez dudala eremu itxi bezala ulertzen, baizik eta eremu ireki eta zabal bezala. Uste dut, ikuspegi komunitario batetik, egun eskolak dituzten pareta fisikoak gainditzea ezinbesteko erronka zaiola eskolari. Eta bide horretan, gure testuinguruan, hainbat dira martxan dauden proiektuak, ikas-komunitateak kasu. Baina hainbat dira egun ere zabaltze bide horretan dauden hutsune eta oztopoak. Ikuspegi horretatik, eskola eta bestelako elkarte, komunikabide, familia zein erakunde desberdinen arteko harremana sustatu eta bultzatu beharko da, euskararen ezagutza zein erabilaren aldeko indarrak komunean bideratzeko.

Salcesek egindako ekarpenetan garrantzia berezia eskaini die komunikabideei eta horiek euskararen normalizazio prozesuan duten edo izan dezaketen indarra azpimarratu du. Eskola eta komunikabideen arteko elkar harremana sustatu beharko litzateke eta ikasleei bideak zabaltzeko beharko zaizkie dauden euskal komunikabideak ezagutu eta horien erabilera bultzatzeko. Baina, Gorkak esaten duena gogoan hartuz, komunikabideek ere esfortzu berezia egin beharko dute, gazteei egokitutako formatu erakargarri bat sortzen, euren behar eta nahiei nolabaiteko erantzun bat emateko, eta gazte horien errealitateetara gerturatzeko. Hots, gakoak diren moduak askotariko ikuspegiak eta edukiak eskaintzen dituzten komunikabideak behar ditugu, erabiltzaile potentzial anitzak euskarazkoetara erakartzeko.

**Euskararen normalizazio bidean erabilerari eskainitako zentralitatea, edota euskara normalizatuko bada diskurtso, jarrera eta jardunbide irekiek, zabalek, legitimatzaileek, integratzaileek duten garrantzia azpimarratzea.**

Goirigolzarrik garrantzia berezia ematen dio erabilerari eta honekin lotuta erabilera guneak ugaritzeari. Bide beretik ere Manterolak erabilera esparruak indartzearen beharra azpimarratzen du, eta bide horretan eskola ez bestelako gizarte eragileek duten ardura nabarmentzen du. Zentzu horretan harreman sareak sortzea garrantzitsua izango da eta batzuetan horiek naturalak izango dira baina beste batzuetan sortu egin beharko dira, eta bide horretan eskola-kanpoko jarduerak izan daitezke jomugetako bat. Erabilera ezagutzarekin lotuta ulertzen du Manterolak, hala, eskolan euskararen erabilera sustatzea funtsezkoa dela dio, euskararen sistemari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza helburu horren zerbitzura jarritz. Euskararen irakaskuntzarako ere baliabide eraginkorrak sortzen jarraitu beharko direla dio.

Bukatzeko, azpimarratu nahiko nuke, eskola barruan eta gelako dinamikari so eginez, baina era berean muga fisiko horiek ere gaudituz, metodologia atalari erreparatzea ezinbestekoa izango dela. Bide horretan, ikuspegi dialogiko batetik lan egiteak, euskararen erabilera lantzeko aukera aproposak eskaini ahal dizkigu, oro har, irakasleei eta noski ikasleei ere. Metodologia horrek, ikaslea parte-hartzaile aktibo bihurtzen du, gelan dagoen ahots aniztasuna azalarazten du, eta horrek era berean ikaslearen motibazioan eragiten du, elkarrizketa ikasketa prozesuaren erdigunean kokatuz.

**Euskararentzako arnasgune bat.**

**Jone Goirigolzarri Garaizar**

Euskararen normalizazioa eta hiztun eta erabiltzaile berriak gure hausnarketan objektu eta subjektu bihurtu ditugun honetan, ideia interesgarriak mahai gaineratu ditugulakoan nago; eta ohartu naiz, eztabaida gaiari ikerketa esparru eta esperientzia desberdinetatik ekin diogun arren, badirela lau begiraden artean espazio komunak, halako sintonia bat. Besteak beste, euskararen normalizazio bidean erabilerari eskainitako zentralitatea, edota euskara normalizatuko bada diskurtso, jarrera eta jardunbide irekiek, zabalek, legitimatzaileek, integratzaileek duten garrantzia azpimarratzea.

Bigarren mintzaldi honetan, artikuluan bildutako lau ekarpenek sortutako gogoetak eta asteotan ikusi zein irakurritakoek eragindakoak plazaratu nahiko nituzke eta, ikasitakoetan oinarrituz, ekarpenari izaera praktikoa eskaini, hain zuzen, ume eta gaztetxoek egunerokoa euskalduntzeko hizkuntza politika sektorial zabal bat proposatuz.

Euskal soziolinguistikan bat-etortzea handia da hizkuntza batekiko motibazioa, motibazioak bere jabeakuntzarako zein erabilerarako oinarrizko elementu direla baieztatzerakoan. Horregatik planteatu ohi dira hizkuntza politika neurri moduan motibazio kanpainak, hain zuzen, euskal hiztun potentzialek eta hiztun berri “pasiboek”- egunerokoan euskara ez dabiltenek- *muda linguistikoa* (Pujolar eta González, 2013) burutu eta euskara euren errepertorio linguistikokoan hizkuntza aktibo bilakatu dezaten. Gurean ere izan du tartea euskararen normalizaziorako gakoetako bat bere erakartzeko ahalmenean oinarritzean dela dioen gogoetak: *hizkuntza eurena dela eta euren errealitateara egokitzen dela sentitu eta euskara erakargarri dela ikusi, hauen errealitate eta erreferentzietara egokituz* (Berasategi, artikulua honetan bertan). Ados nago, baina ados egote horrek baditu ñabardurak.

Koldo Izagirrek (2015) “Herria, nazioa, estatua... eta euskararekin zer?” izenburudun Jakin-en 208. alean, aldizkariak Udako Euskal Unibertsitatearekin elkarlanean antolatutako jardunaldiaren kariatara argitaratutakoan, erakargarritasun diskurtsoari kritika gogorra egiten dio. Izagirrek erakargarritasunaren diskurtsoaren azpian tendentzia sozialak estetika bidez aldatzeko nahi tranpatia begietaraten du, arazo sozial bat arazo pertsonal bihurtzeko amarrua. Idazlearen iritziz hizkuntza baten erakartzeko ahalmena bere hedaduran eta botere politikoan dago, eta hori ezean erakargarritasuna nekez lortu daiteke.

Tranpa eta amarruaren ikuspegia konpartitzen ez dudan arren, euskararen normalizazioa banakakoen borondatean larregi sostengatzea ere arriskutsu ikusten dut. Jakin badakigu, solaskide guztiak euskal hiztunak diren espazioetan ere, sarri ez dela euskara mintzaten; gune erdaldunetako hiztun berriek osatutako espazioetan, adibidez, hainbat aldagai tarteko. Hori dela eta, sinesten dut euskararen presentzia ez litzatekeela banakako hiztunen hautu linguistikoetara mugatu behar. Euskararen presentzia aurretiaz bermatu beharko litzateke espaziotako hainbatetan, bere erabilera nahitaezko bihurtuz. Zentzu horretan, Amonarrizek (Arbelaitz, 2015) euskarak atxikimendu soziala eta derrigortasuna biak konbinatu behar dituela dio. Baina derrigortasuna zein modutan ulertuta? Funtzio konkretu batzuk hizkuntza bakarrean garatzeak dakarren derrigortasun, beharrezkotasun gisa. Hala, Amonarrizen aburuz funtzionaltasunak bihurtzen du hizkuntza bat derrigorrezko, baita erakargarri ere.

Euskararentzako gune hegemonikoak sortze bidean, ume eta gaztetxoek egunerokoa barruti aproposa dela uste dut; izan ere, adin tarte horretan

---

***Euskararentzako gune hegemonikoak sortze bidean, ume eta gaztetxoek egunerokoa barruti aproposa dela uste dut; izan ere, adin tarte horretan biltzen da euskal hiztunen ehuneko handiena, eta beraz, euskararen erabilera normalizatzeko esparru egingarriena ere horixe delakoan nago. Gainera, ume edota gaztetxotan ezarritako ohitura linguistikoek etorkizunari begira eragin baikorra izan dezakete.***

biltzen da euskal hiztunen ehuneko handiena, eta beraz, euskararen erabilera normalizatzeko esparru egingarriena ere horixe delakoan nago. Gainera, ume edota gaztetxotan ezarritako ohitura linguistikoek etorkizunari begira eragin baikorra izan dezakete. Eta, era berean, ez dezagun ahaztu, etorkizuna egungo belaunaldi gazteena dela. Baina nondik abiatu? Ume eta gaztetxoen egunerokoan euskararentzako arnagune moduan jokatzen duen eskolatik. Eta nora heldu? Ume eta gaztetxoek euren egunerokoa igarotzen duten espazioetara; ikasgelatik jolastokira, eskolaz kanpoko jardueretara, plazara, gozokiak erosten dituzten saltokira, etab. atera euskara. Hau da, eskola arnagunearen irradiazio bat da proposatutakoa; arnagunean trenera igo eta, Martinez de Lunak (2015) esan bezala, bidaia irteera geltokitik hurbilen dauden geralekuetara eginik, hasteko.

Zelan egin bidea orduan? Berasategik proposatu bezala, ikuspegi komunitarioa martxan jarritz. Hain zuzen, ume eta gaztetxoen egunerokoan presente dauden agente desberdinak —irakasle, familia, monitore- elkarlanean jarritz eta agente berriak inplikatur— auzoko elkarte, saltzaile, etab. Horretarako, lehenengo egitekoa ume eta gaztetxoen egunerokoa non gertatzen den ezagutzea eta espazio komunak —plaza, liburutegia, dantza taldea— identifikatzea litzateke; eta aldi berean, espazio komun horietan euskararen presentzia zenbatekoa den aztertzea eta berau handitzeko aukerak neurtzea: euskaldun “pasiboak”, euskara hala nola erabiltzeko gai direnak, jakin ez arren ulertzeko gauza direnak, zein oinarrizko ezagutza bat lortzeko prestutasuna duten pertsonak identifikatuz eta euskararen erabileraren alde jarritz. Izan ere, jakin badakigu saltoki batean zerbitzua euskaraz emateko ezagutza maila txikia nahikoa dela, edota ohituragatik gaztelaniaz burutu izan diren hainbat ekimen euskaraz ematen hastea determinazio kontua izan daitekeela.

Ekimen askonahiko honek badu zailtasunik, jakina; besteak beste, egiazko bihurtzeko tartean sartu beharreko eragile ugari eta anitzengatik. Horregatik, ekimenak arrakasta izateko nahitaezkoa litzateke eragile parte hartzaile guztien jarrera eta motibazioen aurre-lanketa handi bat burutzea; Gorka Salcesek proposatu moduan, diskurtsoak agente zein sentsibilitate desberdinetara egokituz.

EAEko herritarren %83k uste du herritar gehienek euskara ikastea komenigarria dela (Berría, 2015); baina benetako ikasketa erabilerarekin bat dator. Hori da seme-alabak D ereduan eskolaratzen dituzten gurasoei transmititu beharreko ideietako bat: euskarak bere espazio propioak

behar dituela xedea ezagutza egonkortzea bada. Aldi berean, agente partaideei ekimenaren zergatia eta zertarakoa transmititzerakoan, gizarteak elebitasun eta eleaniztasunarekiko duen jarrera baikorra euskararen aldeko jarrera bilatzea litzateke gakoa. Euskararen alde egitea eleaniztasunaren alde egitea dela argudiatuz eta ekimena beraien egunerokoan elebitasuna/eleaniztasuna martxan jartzeko aukera paregabea dela ohartaraziz. Ildo horretan, interesgarria da Lutxo Egiak *Bi-lingual transitoak* performance-aren baitan —Bilbon hilabetez gaztelaniaz erabili gabe biziko da 2015eko ekain-uztail aldean—, egindako hausnarketa. Bere blogean adierazitakoak dira hitzok: *erdaldun ezezagun batzuk ukoa ikusten ari dira nire portaeran. Ez omen diet espainolez hitz egin nahi. Ni, aldiz, ukatu barik, eman eta eman ari naiz. Euskara ematen ari naiz* (2015). Hortxe legoke gako garrantzitsu bat, euskaraz komunikatzea aukera moduan ikustea, beti (eta sarri inoiz ere) eskura ez duten aukera gisa.

Bestalde, ekimen hau nork bideratu beharko lukeen? Aukera desberdinak leudeke. Posible litzateke eskola izatea lehen bultzatzailea, edota guraso talde batek hartzea gidaritza, zein udaletxetik bideratzea ekimena. Edozelan ere, ekimenaren arrakasta hasierako talde sustatzailearen konpromisoa gainontzeko agenteetara heltzean legoke; batzuek eta besteek ekimena propio sentitzean; esan beharrik ez dago, baita (edota nagusiki) ekimenaren helburu diren ume eta gaztetxoek.

Laburbilduz, euskarak aurrera egingo badu arnaguneak behar ditu, espazio propioak. Hori da transmititu beharreko ideia, eta ilusio eta nahi bihurtu beharreko proiektua.

## LABURBILDUZ

I

**Itxiera bat, irekieraren alde.**

**Xabier Landabidea**

Ez da ohikoena izaten esparru ezberdinetako adituei euskararen normalizazioaren inguruko klabeak identifikatu eta artikulatzeko eskatu eta harmonia aurkitzea, eta are gutxiago hamar eskutara jo eta konposatutako pianorako pieza batean. Agian IkerGazte kongresuan gaia ez ezik mahaia ere banatu izanak, bertan aurkeztutakoa paperera eramateak eta beste hizlariak esandakoari erantzuteko tartea hartzeak lagundu du sintoniak bilatzen, baita abiapuntuetan ere.

Hala, nabarmentzekoa da Txepetxen eskema klasikoa eguneratzeko nahia haren balioa aitortu eta birformulatzeko behararekin azaltzen

***Finean, arnagune (fisiko naiz ez fisikoak) eskaintzeaz gain, euskararen hiztun berriei estres linguistikoaren kontrako legitimazio-guneak edo legitimazio-uneak emateko ideia aurki dezakegu, euskal hiztun oro hiztun legitimo sentiarazteko aukerak sortzearena kategorizazio oztopatzaileak gainditzeko.***

dela lau egileen proposamenetan, eskola esparrua mintzagai hartu duten bi egileengandik hasita. Hizkuntzaren didaktikatik erabilera eta ezagutza uztartzearen alde egin du Ibon Manterolak erabileraren ezagutza eta ezagutzaren erabilera defendatuz: “argi dago euskal eskolaren erronka nagusia ikasleei euskara *erabiltzen irakastea* dela” (letra etzana geurea). Naiara Berasategik ere kategorien ulkerera dikotomikoaren aurka “tarteko aukerak” baliatzeko aukera azpimarratzen du, ezagutza eta erabileraren aldeko indarrak batu eta motibazioa modu planifikatuan landu dezakeen eredu integratibo baten alde. Hala, Berasategirentzat eragileen eta eragin-esparruen arteko elkarlana ezinbestekoa da: “Eskolak lan handia egin du... baina ez da nahikoa” eta “...eskolako eremua ez dudala eremu itxi bezala ulertzen, baizik eta ireki eta zabal bezala”.

Hizkuntza politika eta komunikazioaren perspektibatik ere Txepetxen kategoriak nortasun eta gutasunaren ikuspegitik aztertu dira. Jone Goirigolzarri ere erabilera jarri du nortasunaren eta gaitasunaren gako nagusi bezala, eta hortaz ezagutza eta motibazioaren erdigune: “euskara normalizatzeko eta *euskararen gutasunak* eraikitzeke erabilera gako bada, mintzatzeko aukerak ugaritzea, erreal bihurtzea, nahitaezkoa da” (letra etzana gurea). Ildo antzekotik heltzen dio gaiari Gorka Salcesek ere, euskaldunen (edo euskararen gutasunen) tipologia berriei egokituko zaizkien motibazioak aipatzean, pluralean: “...egiari zor pluralean deklinatu beharko genuke aldagai giltzarri hori haren benetako eraginaz eta dimentsioaz jabetzeko.”

Lerro hau bereziki interesgarria da, lau ikerlariak bat datoz hiztun berrien legitimazioaren alde lan egin behar dela esaterakoan. Finean, arnagune (fisiko naiz ez fisikoak) eskaintzeaz gain, euskararen hiztun berriei estres linguistikoaren kontrako legitimazio-guneak edo legitimazio-uneak emateko ideia aurki dezakegu, euskal hiztun oro hiztun legitimo sentiarazteko aukerak sortzearena kategorizazio oztopatzaileak gainditzeko.

Azken proposamenei dagokienez uztarketa, sinergien bilaketa eta elkarlanerako aukera eraginkorr(ago)ak zabaltzeko egiten diren deiak aipatzeak merezi duela uste dut. Hala, eskola eta komunikabideen artean egin daitekeen lana “hedabideak ere halako inguru erdaldunetan euskararen arnagune izan daitezke, euskaraz aritzeko aukera eman dezakete-eta” (Manterolak, Salcesen proposamena sekuentzia didaktikoetara eramatea proposatzerakoan) edota muda linguistikoa gerta

dadin aukerak sortzea aipatzen dira “euskararen presentzia aurretiaz bermatu beharko litzateke espaziotako hainbatetan (...) Euskararentzako gune hegemonikoak sortze bidean” (Goirigolzarrik, Berasategik euskara erreferentzia eta errealtate ezberdinetara egokitzeaz egindako proposamenari buruz). Zentzu horretan Berasategik eskola *arnasgune ez-nahikoa* edo nahikoa ez den arnasgune bezala definitzen duenean lau egileen ekarpenaren muina ondo jasotzen duela iruditzen zait, finean eragileen elkar-harreman berri eta zaharren defentsa baita orriotan agertzen dena: euskararen normalizazioaren aldeko ikuspegi komunitario zabal, ireki eta indartsuago baten aldeko (i)deia, diskurtso zaharkituak gainetik kendu eta arnas berriak ekarriko dizkiena sektore eta sentsibiltate ezberdinetako eragileei.

Bukatzeke eta bigarren ondorio bezala lau egileei darien *baikortasun funtsatua* aipatuko nuke. Baikortasuna, ekarpenak zentzu eraikitzaile eta aurrerazalean egiten direlako, eta funtsatua, nor bere esparruaren muga eta oztopoez kontzientziaz ari dela argi dagoelako (dela eskola, espazio publikoak, komunikabideak edo kurrikuluma). Horra artikulua benetako sintonia: oztupoak ez dira hainbeste arazo, baizik eta saia daitezkeen aukerak bilatzeko eremu. Goirigolzarrik bere erantzunean dio “... gizarteak elebitasun eta eleaniztasunarekiko duen jarrera baikorra euskararen aldeko jarrera bilatzea” litzatekeela gakoa, eta iruditzen zait euskalgintzak ere baduela jarrera baikorrak euskararen aldeko jarrera bihurtzeko aukera.

Poztekoa iruditzen zait lau egileak sintonia baikor horretan bat etortzen ikustea. Lortutakoa baloratu eta egiteko dagoenera ausartuko den euskalgintza garaikide baten zeinu izan daiteke.●

## BIBLIOGRAFIA

- Agirre, L. (2012ko urriaren 18). Euskara, elkarbizitzarako giltza. *Berria*.  
[http://www.berria.eus/paperekoa/1513/010/001/2012-10-18/euskara\\_elkarbizitzarako\\_giltza.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1513/010/001/2012-10-18/euskara_elkarbizitzarako_giltza.htm)
- Aksoy, A. & Robins., K. (2006): “Thinking experiences. Transnational media and migrants’ minds”. Curran, J. eta Morley D. (ed.): *Media and Cultural Theory*, 86-99. Routledge: Abingdon.
- Amezaga, J. (2013), “Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak”, in Eusko Jaurlaritzaren (arg.), *Ikasleak hiztun: 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Amezaga, J. et al. (2001): Biladi. “Usos de la televisión por satélite entre



- los y las emigrantes magrebies en Bilbao”, *Zer*, 6, 10, 81-105.
- Amorrrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I., Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Ander-egg, E. (1987). *Metodología y práctica del Desarrollo Comunitario*. México: El Ateneo.
- Arantzabal, I. (2008). Tokiko hedabideek etorkizun handia dute. *BAT soziolinguistika*, 68, 103-114.
- Arbelaitz, L. (2015). Euskalgintza. Berritu ala hil. *Larrun*, 197. <http://www.argaia.eus/argaia-astekaria/2458/euskalgintza-berritu-ala-hil>
- Arbelaitz, L. (2015). Euskalgintza. Berritu ala hil. *Larrun*, 197. <http://www.argaia.eus/argaia-astekaria/2458/euskalgintza-berritu-ala-hil><http://www.argaia.eus/argaia-astekaria/2458/euskalgintza-berritu-ala-hil>
- Argia (2014): “Jaurlaritzaren publizitate instituzionala: ia dena erdal hedabideentzat”. *Argia*, 2014-11-20.
- Argia (2015eko martxoaren 30). *Korrika lekukoan Euskal Herria zeharkatu duen mezua: Bagara nor*. <http://www.argaia.eus/albisteak/korrikako-lekukoan-eskuz-esku-euskal-herria-zeharkatu-duen-mezua-bagara-nor>
- Arratibel, N. (1999). *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: Motibazioen errola*. PhD thesis, University of Basque Country.
- Arrue-Ebaluzio Diagnostikoa 2011: *Ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza,
- Azpillaga, P. (2014): “ETB-1, euskararen aldeko apustuan berrikuntza gutxi”. *Argia*, 2014-03-11.
- Azurmendi, M.-J., Romay, J., & Valencia, J.F. (1996). Identidad étnica y relaciones intergrupales en el mundo hispanohablante. In R.Y. Bourhis, & J.-Ph. Leyens (Eds.), *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos* (pp. 241-285). Madrid: MacGraw-Hill.
- Badu Bada (2012). *BDUBDA Estreslinguistika*. <https://www.youtube.com/watch?v=lGfydvpa3Vk>
- Berasategi, N. (2014). *Hizkuntza eta kultura praktikak eskola testuinguruan. Euskararen erabileran eta euskal kultur praktikan eragiten duten faktoreak*. Bilbo: University of Basque Country.
- Bereziartua, G. (2013). *Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo*. PhD thesis, University of Basque Country.
- Berria (2015/06/30). *Euskara, gaztelania eta ingeleza jakiteari antzeko garrantzia ematen diote herritarrek*. [http://www.berria.eus/albisteak/112469/euskara\\_gaztelania\\_eta\\_ingelesa\\_jakiteari\\_antzeko\\_garrantzia\\_ematen\\_diote\\_herritarrek.htm](http://www.berria.eus/albisteak/112469/euskara_gaztelania_eta_ingelesa_jakiteari_antzeko_garrantzia_ematen_diote_herritarrek.htm)[http://www.berria.eus/albisteak/112469/euskara\\_gaztelania\\_eta\\_ingelesa\\_jakiteari\\_antzeko\\_garrantzia\\_ematen\\_diote\\_herritarrek.htm](http://www.berria.eus/albisteak/112469/euskara_gaztelania_eta_ingelesa_jakiteari_antzeko_garrantzia_ematen_diote_herritarrek.htm)

- 12469/euskara\_gaztelania\_eta\_ingelesa\_jakiteari\_antzeko\_garranzia\_ematen\_diote\_herriarrek.htm
- Bronckart, J.-P. (2004) *Actividad verbal, textos y discursos: Por un interaccionismo socio-discursivo*, Madrid, Fundación Infancia y Aprendizaje.
- Cenoz, J. (2008). *Towards multilingual education. Basque educational research from an international perspective*. Bristol: Multilingual Matters.
- Clément, R. (1980). Ethnicity, contact and communicative competence in a second language. In H. Giles, W.P. Robinson, & P.M. Smith (Eds.), *Language: Social psychological perspectives*. Oxford: Pergamon.
- Cummins, J. (1979). Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children. *Review of Educational Research*, 49, 222-251.
- Diaz, K. (2014): *Faceguk. Euskal identitatearen eraikuntza soziala etnografia digitaletik aztertuta*. EHU: Bilbo.
- Dolz, J. Gagnon, R. & Mosquera, S. (2009), "La didáctica de las lenguas: una disciplina en proceso de construcción", *Didáctica. Lengua y Literatura*, 21. 117-141.
- Egia, L. (2015). *Transitoak*. <http://www.berria.eus/blogariak/transitoak/>  
<http://www.berria.eus/blogariak/transitoak/>
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua (2005). *Hizkuntza-politika indartu eta garatzeko hamar proposamen*. <http://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/Hizkuntza-politika-indartu-eta-garatzeko-hamar-proposamen-20051213.pdf>
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua (2009). *Hizkuntza-politika berri eraginkorra*. <http://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/HIZKUNTZA-POLITIKA-BERRI-ERAGINKORRA.pdf>
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Freire, P. (1997). *Pedagogía de la Autonomía*. México: Siglo XXI.
- García, I. (2001). *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: Identitate etnolinguistikoa garrantzia*. PhD thesis, University of Basque Country.
- García-Azkoaga, I., Idiazabal, I. & Larrigan, L.M. (2012), *Ikastaria*, 18. *Sekuentzia didaktikoak eta hizkuntzen curriculum: teoria eta praktika*.
- Goirigolzarri, J. (2015). *EAEko alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak 1980-2012: Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programen azterketa*. Doktorego tesia: Deustuko Unibertsitatea.
- Habermas, J. (1987). *Teoría de la acción comunicativa*. Madrid: Taurus.

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2011): *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritza: Gasteiz.
- (2013): *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritza: Gasteiz.
- Idiazabal, I. (2008) "Gramatika eta hizkuntzaren didaktika", in X. Artia-goitia & J. Lakarra (eds.) 2008, *Gramatika Jaietan Patxi Goenagaren omenez*. Bilbao: UPV/EHU.
- Idiazabal, I., Manterola, I. & Diaz de Gereñu, L. (2015), "Objetivos y recursos didácticos para la educación plurilingüe", in I. Idiazabal & I. Garcia Azkoaga (eds.), *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbao: UPV/EHU.
- Inda, M. (2014). Mintzapraktika egitasmoak, arnagune funtzionalak. *Gaur, Euskara praktikatu. Bihar, euskaraz bizi* Jardunaldian burututako aurkezpena. Bilbo, 2014ko azaroaren 28an. [https://www.youtube.com/watch?v=i7gai\\_-B4AY](https://www.youtube.com/watch?v=i7gai_-B4AY)
- ISEI-IVEI & Soziolinguistika Klusterra (2013). Retrieved 03/02, 2014, from [http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/2802/Arrue\\_Prentsaurrekoa\\_eus.pdf?1359118341](http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/2802/Arrue_Prentsaurrekoa_eus.pdf?1359118341)
- Izagirre, K. (2015). Mito baten sorburua. *Jakin*, 208, 41-50.
- Johnson, D. & Johnson, R. (1994). Learning together. In: Sharan, S. *Handbook of Cooperative Learning Methods*. London: Praeger.
- Landabaso, G. (2015): "Jalgi hadi plazara", *Berria*, 2015/05/05 [http://www.berria.eus/paperekoa/1922/019/002/2015-05-05/jalgi\\_hadi\\_plazara.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1922/019/002/2015-05-05/jalgi_hadi_plazara.htm)
- Larringan, L.M. & Idiazabal, I. (2012), "Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria", *Ikastaria*, 18, 13-44.
- Lull, J. (2006): "The push and pull of global culture". Curran, J. eta Morley D. (ed.): *Media and Cultural Theory*, 44-57. Routledge: Abingdon.
- Manterola, I. (2011) *Euskarazko murgilketa aur hezkuntzan: Euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa*, Doktorego tesia. UPV/EHU.
- Manterola, I., Almgren, M. & Idiazabal, I. (2013), "Basque L2 development in immersion school settings", *International Journal of Bilingualism*, 17(3) 375-391.
- Mard, K. (1995), "Immersion Pre-School as an Environment for Early Second Language Acquisition", in M. Buss, & C. Lauren, (Ed.) *Language Immersion: Teaching and Second Language Acquisition. From Canada to Europe*. Vaasan Yliopiston Julkaisuja. University of Vaasa
- Martínez de Luna (2015). *Euskara, estatugintza eta naziogintzaren erdian* Udako Euskal Unibertsitatearen Jardunaldia. Iruñea. <https://www.youtube.com/watch?v=1IMOCVXn-xQ>  
<https://www.youtube.com/watch?v=1IMOCVXn-xQ>

- Martinez de Luna, I. et al. (1998): "Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa", *BAT soziolinguistika*, 26, 59-84.
- Martinez de Luna, I., & Suberbiola, P. (2008). Measuring Student Language Use in the School Context. *Language, Culture and curriculum*, 21, 1, 59-68.
- Meyrowitz, J. (1985): *No sense of place: The Impact of Electronic Media on Social Behavior*. Oxford University Press: New York eta Oxford.
- Moring, T. (2007): "Functional completeness in minority language media". Cormack, M. eta Hourigan, N. (ed): *Minority language media. Concepts, critiques and case studies*. Multilingual Matters: Clevedon.
- Ortega, A. et al. (2013): "Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: "nolako euskalduna naiz?" *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88, 151-170.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., Uranga, B. (2013). Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: "nolako euskalduna naiz?". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88, 151-170 or.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., Uranga, B. (2013), "Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: "nolako euskalduna naiz?"", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88, 2013 (2-3), 151-170.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Uranga, B. (2015). Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 2015(231), 85-105 or.
- Pueyo, M. & Turull, A. (2003). *Diversitat i política lingüística en un món global*. Barcelona: Pòrtic.
- Pujolar, J., González, I. (2012). Linguistic 'mudes' and the de-ethnicization of language choice in Catalonia. *The International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2). 138–152.
- Ruiz, J. (2014). *Elkarrizketa elebidunak*. Moti+Batu topaketarako prestatutako bideoa. Donostia, 2014ko irailak 10 eta 12. <http://www.lantalan.com/motibatu-topaketa>
- Sanchez Carrion, J.M. (1991): *Un futuro para nuestro pasado*. Elkar: Donostia.
- Sánchez Carrión, J.M., "Txepetx" (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskara y la teoría social de las lenguas*. Donostia: Elkar.
- Sarasua, J. (2013): *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Pamiela: Iruñea.
- Skehan, P. (1989). *Individual Differences in Second Language Learning*. London: Arnold.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). *Hizkuntzaren Kale-erabileraren VI. neurketa*. <http://www.soziolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Eaitzen%20txostena.pdf>

- Soziolinguistika Klusterra (2011): *Hizkuntzen Kale Erabileraren VI. Neurketa*. Andoain.
- Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A., & Ortega, A. (2008). *Hizkuntzak eta Inmigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, UNESCO etxea, UPV/EHU.
- Vincze, L. eta Moring, T. (2013): "Towards ethnolinguistic identity gratifications". Jones, E. eta Uribe-Jonbloed, E. (ed): *Social media and minority languages. Convergence and the creative industries*, 47-57. Bristol: Multilingual Matters.
- Zalbide, M. (1998), "Normalización lingüística y escolaridad : un informe desde la sala de máquinas", *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 43, 2. 355-424.
- Zalbide, M. (2010), *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuberogoitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*. Bilbo: EHU.